

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Apirilak 26, 104. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**NEKANE
SAN MIGEL,
Abokatutzatik
epailetara**



Goikobalu, éztitan

• BERTSO JAIALDIA • SAN ANDRESKO JAIETAN

Apirilaren 27, larunbata
arratsaldeko 8.15etan
San Andresko Gudari plazan

BERTSOLARIAK:

- Jon Lopategi
- Mikel Mendizabal
- Arantzazu Loidi
- Kristina Mardaras

Gaijartzaile: Jon Iñaki Izarzelai

OSTIRALETAKO ZINEA

Maiatza

Sexu zinemaren zikloa

- *3an* **Delicias turcas.**
- *10ean* **Imperio de la pasión.**
- *17an* **Ordinaria locura.**
- *21ean* **Cuentos inmorales.**
- *31n* **Iuserts.**



EUSKAL HERRIKO DANTZA IKASTAROA

- Ostiraletan 7etatik 8.30etara.
- Maiatzaren 3tik ekainaren 21era.
- Lore Gazteak dantza taldearen eskutik.
- 14 urtetik gorakoentzak.
- Inskripzioak: Gazte Inf. Bulegoan.

Tfnoa: 77 00 65

- Matrikula doan.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Leguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetza:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Eta gure animaliak?

Oraindik nire gogoan dut, hamar-hamabi urte nituela gaurko Iturriotz kalean jolasten ari nintzen arratsalde hartan, emakume harek eman zidan zaplastekoa: animaliak biziki atsegin eta maite izateagatik erdi zorrotzat genuen andre harek katu bati harrika erasotzen harrapatu ninduen. Harrez geroztik, hamaika aldiz oroitu dut eskena hura, batipat animaliekin egindako esperimentuak edota haien kontrako atentatuak ikusten ditudanean.

Gezurra dirudien arren, gure gizartea zenbat eta jantziago agertu hainbat eta axolagabeagoa omen da animaliekiko. Gaur eguneko teknika sofistrazioak, bestalde, are ageriago ipini dizkigu haiekiko oker eta hutsak. Ez naiz ari, bakarrik, ehiza kontrolatugabeak ekar ditzakeen kalteei buruz. Ene ustez, badira horiek baino suntsigarriago gerta daitezkeen sistemak. Eta horren lekukotasuna egunero aurki dezakegu gure inguru hurbilean.

Ez nauzue etxe-animalien zale. Baina ulertzen ditut euren etxeak katu, txakur edota beste edozein espeziez beterik dauzkatenak. Ezin agoanta ditzaket, ordea, beren bizitza arautu eta egituratua ez okertzearren, etxe-katuen hatzaparrak behin-betiko mozten dituztenak, kumerik izan ez dezaten euren txakur emeei antzutasuna eragiten dietenak edota lehiaketaren batera aurkezteko beren anima-

lien itxura aldatzen saiatzen direnak.

Gure gizartearen aurrerapenak egundoko arazo larriak ekarri dizkio gizonari. Horietako bat, ez txikiena, espazioaren murriztasuna da. Hiri berri, errepide eta autobide berri, hots, zementozko zibilizazioa tokia lapurtzen ari zaio izadiari, lehendabiziko galtzaile zuzena animalia gertatuz. Zenbait industri mota animaliez baliatzen dira, euren helburuei eutsi ahal izateko. Mediku-ikerpenak erabatekotzat jotzen du animaliekin sakondu beharreko erabilera. Baina, beti izan beharko litzateke balaztarena egin lezakeen mekanismoa, beste ezertarako ez bada ere, gizonaren duintasuna goian uzteko. Izan ere, animalien galera zuzen horrek gugan -arrazoidunengan- eragin baitezake berehalako ondorioa.

Hitz ponpoxoetako testu eta asmoetatik praktikara igarotzeko ordua iritsi zaigu; berandu baino lehen, lanari ekin beharko litzaioke era guztietako defentsa eta ugalketa proposatuz. Garapenaren ordaina izadiaren hondamendia bihurtu delarik, zera gogoratu beharko genuke, gure jakinduria epe laburreko nahikeriak asetzeko bakarrik erabiliz gero, erdi edo epe luzeko etorkizunean izugarritzko lakioan egon gaitezke; agian, atzerantz egitea ahalbidetuko ez digun lakio itotzailan.

Josemari Velez de Mendizabal

egizabal

Bidekurutzeta 13,
BERGARA

Elisabete



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

*Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak*

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92



HAURTXA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE



beinke

ARAMAIO

okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

Berreskura dezagun Kobate

Orain dela aste gutxi batzuk, Kobate erreka inguruan, Garagartzan, argazki batzuk ateratzeko asmoarekin lezetxiki kobazulora doan sendan gora abiatu ginen, eta atsegina ez den ezustekoa hartu genuen, senda pasatzen zen mendialdea pista batek moztuta ikusi genuenean. Pista hori Kobateko harrobian hasten da eta zeharretara gurutzatzen du aipaturiko mendialde hori, lehen senda zena orain lurrerauzketa bilakatuz. Horrek asko zailtzen du sendatik gora jarraitzea; izan ere, bertatik pasatzeko trepatu beharra dago.

Hondamen hura ikusita, Kobateko harrobiko arduradunengana jo genuen, zatikatze hura beraiek egindakoa izango zelakoan, baina esan zigutenez guzti hura Udalaren gauza zen eta ez euren, itxura denez ur-biltegi bat jartzeko edo halako zozertarako egindakoa.

Gure ustez obra horiekin ez dute zerikusi handirik Arrasateko arau subsidarioekin; arauotan leku hori arkeologi intereseko zonatzat jotzen bait da, eta ez dugu ulertzen, beraz, nola hondatu duten era horretan izendatze hori egin dutenek.

Halakoak ikusirik, nola eskatuko dio Udalak inori hainbat arau bete ditzala?

Guretzat Kobate erreka-arro osoa da arkeologi interesekoa, eta ez Lezetxiki kobazulora doan Bostate mendialdea bakarrik; izan ere, hain hurbil egonik baliteke oraindik aurkitu gabeko hutsuneguneak egotea, eta babesteko neurririk hartu ezean, betirako gal daitezke. Bestalde, Kobate erreka berreskuratzea komeni dela iruditzen zaigu, berriro ere ura eroan dezala, bere iturburuan irtenbide bat badago eta. Gure ustez, leku batek bizia eta nolabaiteko ekologi interesa izan dezan, beharrezkoa da bertan animalia nahiz landareak bizi ahal izatea, eta horretarako ezinbestekoa da ura egotea.

Beti uste izan dugu administrazioari, kasu honetan Udalari, dagokiola gure ingurunean

zainketa bultzatzea, eta are gehiago egoera egungoa bezain kaltetua dagoenean. Arrasaten gutxi dira nolabaiteko interesa duten lekuak, masifikazio handirik gabekoak eta gizonaren eragina, handia izan arren, hain kaltegarri gertatzen ez zaienak zain ditzagun, bada, leku horiek.

Besaide M. E. Espeleologi Taldea

Garantia norentzako?


Etxeko buzoitik jaso dugu gaztelera hutsez PSE-PSOEK "Garantia de futuro" izenez banatutako papera.

Batasuna, diskriminazio-eza, demokrazia, partizipazioa... hitzez betea dator papera.

Noren artekoa nahi duten batasuna? Nork diskriminatzen du nor? Zertan gauzatzen da demokrazia? Euskaldun izateari uko egin behar al diogu Euskal Herria egiten partizipatzeko?

Norentzat da eskaintzen duten etorkizun hori?

R. Goikoetxea




Arrasatearrak dotore jazten dira?




Miren Jauregi
(Dendaria)

Beno, batzuk bai, baina normalean ez. Normalean bakeroak eta horrelakoak.



Igor Lasagabaster
(Ikaslea)

Dirua duena bai, baina ez duenak, ezin.



Koldo Zubizarreta
(Dendaria)

Uste dut baietz. bakoitza ahal duen eta dotoreen jantzita joaten delako beti.





Leire Elkoro
(Ikaslea)

Normal. Hemengo jazkera beste herri guztietakoa bezalakoa da.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORIATZA

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



26 OSTIRALA

- Zinea: Amaia. "Inserts" gaueko 10.30etan.
- Alai. "Poli de guarderia", 7 eta 9.30etan.
- San Andresko jaien hasiera, arratsaldeko 6.30etan, gauean Izadirekin dantzaldia.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

27 LARUNBATA

- Zinea: Alai. "Poli de guarderia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- San Andresko jaiak: arratsaldeko 5etan dantza exhibizioa, 7etan entzierroa, eta 11etan "Scala 2000" taldearekin dantzaldia.
- Folk jaialdia: "The Varely Works", gaueko 10.30etan. Amaian.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

Kirol Agenda

Txirrindularitza

Gipuzkoako txapelketa, San Andresen asteazkenean goizeko 10etan.

Eskubaloia

Arrasate-Jarrileros, larunbatean Musakolan 6.30etan.

28 IGANDEA

- Zinea: Alai. "Poli de guarderia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- San Andres auzoko jaiak: eguerdiko 12etan gimnasia erritmikako erakustaldia eta arratsaldeko 6.30etan dantzaldia Eskoriatzako musika taldearekin.

29 ASTELEHENA

- Zinea: Alai. "Poli de guarderia", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia: "Denak kurduen etsai? Gu elkartasunean", Monterronen arratsaldeko 7etan.

30 ASTEARTEA

- Zinea: Alai. "Las edades de Lulú", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- San Andresko jaiak: gaueko 10.30etan dantzaldia

"Palmeras" taldearekin.
• Hitzaldia, "Arrasate auzoz auzo", Monterronen arratsaldeko 7etan.

1 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai. "Las edades de Lulú", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- San Andresko jaiak: eguerdiko 12.30etan herri kirolak eta arratsaldeko 6.30etan jaien bukaera erraldoi eta buruhandien kalejirarekin.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

2 OSTEGUNA

- Zinea: Alai. "Las edades de Lulú", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia: Hondakin solidoak Deba Garaian, EPPko Areto Nagusian. 7.00etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

Futbola

Mondragon-Aurrera Ondarroa, igandean Atxabalpen 4.45etan.

Emakumezkoen futbola

Aretxabaleta-Mondra, larunbatean Aretxabaletan arratsaldeko 5etan.

Pilota

Musakolan, larunbatean arratsaldeko 3.30etan eskuz-eskuzko partiduak mutikoentzat.

Liburu berriak

Hona hemen Monterrongo liburutegiko azken nobedadeak:

- GIFFORD, Barry: La historia de Sailor y Lula (nobela).

- PEREZ-REVERTE, Antonio: La tabla de Flandes (nobela).

- NAVARRO, Justo: Accidentes íntimos (Heralde nobela saria).

- ALMODOVAR, Pedro: Patty Diphusa y otros textos.

- RIMBAUD, Arthur: Denboraldi bat infernuan.

- GOYTISOLO, J.A.: Palabras para Julia (poesia).

- FERRERO, Jesús: Alis el Salvaje (nobela).

- MENDOZA, Eduardo: Sin noticias de Gurb (nobela).

- GRANDES, Almudena: Te llamaré Viernes (nobela).

- McEWAN, Ian: El inocente (nobela).

- CEREZALES, Agustín: Escaleras en el limbo (ipuinak).

Ikastaroak

• Euskal dantza ikastaroa

Udaleko Gazte Zerbitzuak antolatutako, maiatzaren 3tik ekainaren 21era bitartean, Euskal dantzen ikastaroa burutuko da. Ikastaroa "Lore Gazteak" dantza taldekoek eskainiko dute, hamalau urtetik gorakoei zuzenduta dagoelarik. Ikastaroa bera ostiraletan emango da, arratsaldeko 7etatik 8.30ak bitartean.

Euskal dantzak ikasi nahi duten guztiek, Gazte Zerbitzutik pasatu eta izena ematea besterik ez daukate, edo bestela 77 00 65 telefono zenbakira deitu, gainerakoa dohainik baita.

• Bertso ikastaroa

Leintz Bailarako Bertso Eskolak antolatuta, maiatzaren 2tik 16ra. 2.000 ptako matrikula.

1991ko apirilak 26



JAIK

San Andresen saltsa ugari

Gaurtik hasi eta asteazkenean arte, San Andres auzoko jaietan zeregin ugari izango da, egitarau luze eta bete osatu bait dute. Gaur bertan, etxaleroak jaurti eta gero, gaueko 10.30etatik aurrera "Izadi" taldeak antolatutako dantzaldia izango da. Zezenen entzierroa eta bertsoariaren saioa larunbat arratsaldeko interesgarriena izango dira, gauean "Scala 2000" taldeak dantzaldia eskainiko duelarik.

Igande goizean, ohizko dianaren ondoren, gimnasia erritmikako erakustaldia eta saskibaloia egongo dira. Arratsaldean berriz, 6.30etan, Eskoriatzako musika taldearekin dantzaldia egingo da. Asteartean, gaueko 10.30etan, "Palmeras" musika taldeak dantzaldia eskainiko du. Maiatzaren 1ean, jaietako azken egunean, aipagarriena goizen burutuko diren Gipuzkoako txirridulari txapelketa eta herri kirolen erakustaldia izango lirateke. Ohi denez, jaietako bukaera emateko kalejira egingo da, buruhandi eta erraldoiekiri.

Izena emateko epea apirilaren 30ean bukatuko da. Horretarako 79 54 46 telefonora deitzea besterik ez dago. Ikastaroa 0 mailatik hasiko da, eta batez ere, helduei zuzenduta dago.

Erakusketak

• Hans Christian Andersen Saria

Datorren ostiralera arte, Monterronen Hans Christian Andersen Saria irabazi duten idazleen liburu-erakusketa egongo da. Erakusketa Eskoriatzako Irakasle Eskolak antolatuta, ikusi nahi duenak goize-

tan 11etatik 1era, eta arratsaldetan 3etatik 7etara ikusi ahal izango duelarik.

Erakusketaren inguruko ekitaldiak antolatuta dira. Ostegunean, arratsaldeko 7etan, Arrasateko Udaletxean Federico Martinen Gianni Rodariri buruzko hitzaldia izango da; ostiraletan berriz, haur liburutegian haurrei zuzendutako beste hitzaldia izango da, arratsaldeko 5etan

Lehiaketak

• San Juan 1991 kartel-lehiaketa.

Urtero bezala, aurtien ere

Arrasateko Udalak San Juane-tarako Kartel-Lehiaketa antolatuta du. Lehiaketa honetan parte hartzeko baldintzak asko direnez, aipagarrienen berri emango dizuegu oraingoan, gainerakoei buruz ezer jakin nahi duenak Udaletxeko Kultur Batzordearekin harremanetan jarzea besterik ez duelarik.



Lehiaketara aurkezten diren kartelak maiatzaren 24a baino lehen entregatuko dira Udaletxean, eta "1991 San Juak jaiak Arrasate" esaldia derrigorrez agertu beharko da. Lehiaketa irabazten duenari 50.000 pezetako saria emango zaio.

• Tute, Billar eta Domino lehiaketa.

Abaroan jubilatuta eta pensionistentzat tute, billar eta domino txapelketak antolatuta dituzte. Lehiaketa horietan parte hartu nahi dutenek, derrigorrez bikoteka, apirila bukatu aurretik egin beharko dute izenematea.

Maiatzean, Arrasate mailan egingo dira txapelketak, eta hor irabazle ateratzen direnek eskualde mailan jokatu dute, handik hoberenak Gipuzkoako txapelketara joango direlarik.

Txapelketa hauetaz gain, beste hainbat antolatutako asmoa dago, damak, puntto, esku pilota, igeriketa, txirridularitza... Beraz, jubilatuta egon eta zerbait egin nahi duenak badaki nora jo!

“Orain urte bete gizartearen esparru ezberdinetan lan egiten duten hogeitaemezortzi erakunde arrasatearrek erabaki bat hartu zuten: beren arteko harremanak ahozko nahiz idatzizkoak euskaraz izango zirela. Erabaki hau ziurtatzeko, hitzarmen bat sinatu zuten erakundeok eta joan den abenduan beste hogeitabat erakunde erabaki horretara bildu zitzaizkien. (...) ‘Nik esango nuke erabaki hau indarra hartzen ari dela, ikusi besterik ez dago joan den urtearen bukaeran beste hogeitabat erakunde bildu zitzaizkigula. Eta arrasatearren euskararen aldeko jokaera pizten ari dela ikus daiteke. Ez da inoiz aurkako jarrerarik eman, baina ezta aldekorik ere eta orain euskararen aldeko giroa sortzen ari dela ikus daiteke’

Dena den, eztabaidak egon dira hitzarmena dela eta, ezta?


J.M.M.-Arrasatearren ez da inoiz horrelakorik eman. Egon den eztabaida bakarra bapateko itzulpenarena izan da, ea udalaren bileretan horrelako itzulpenik erabili behar zen ala ez”.

*(Joxe Mari Mujika, AEDko lehendakariak
Habe aldizkarian)*

“HBri buruz honako hau utzi nahi izan zuen garbi: ‘asmoa ez da inori alkatetzarik kentzea. HB zerrendarik bozkatuena bada, eta ez dut uste Arrasaten hori gertatuko denik, erabateko gehiengo izan beharko du alkatetza lortu edo bere inguruan gehiengo bat eratzeko obligazioa bere gain hartuko badu. Hala egingo ez balu, beste batzuk egingo genuke. Baina hori ez da inori ezer kentzea”.

(Joseba Egibarrek Arrasateko Batzokian)

Zeintzuk dira San Andres auzoko arazo eta behar nabarmenenak?



Historia piska bat egi-tea ezinbestekoa da. San Andres auzoa, kanpotik jende asko etorri zen garaian egindako auzoa da. Jendetza horren etorrerak

baldintzatuta auzoa ez zen behar bezala eraiki, urte batzuk igaro ondoren, asko nabaritu delarik: espaloiak zeharo hondatuta daude, sotoetan ura sartzen da, berdegune ego-kirik ez dago, zoluaren egoera ere oso txarra da...

Behar bada, etxebizitza horiek orduko beharrei erantzuteko balioko zuten, baina oraingoei erantzuteko ez, duela urte batzuk berdeguneak zeuden tokian orain etxebizitzak daude eta. Udaleko mantenimendu zerbitzua auzoan sarriago ibili beharko litzateke.

Beharren artean, lokalen beharra aipatuko nuke. San Andresen ia sei mila pertsona bizi gara, eta guztiontzat lokal bakarra daukagu: etxebizitzetako asanbladak, alkatetzako lanak, xake taldea, eta askoz ere jende gehiagok erabiltzen dugu areto hori.

Xakeaz gain, gazteei zuzendutako beste ekintza batzuk ere bultzatu nahi genituzke, horretarako lokalak behar ditugularik.

Aparkalekuena, era berean, arazoa eta beharra da. Udalak, Cordoba y Oro plazan lurrazpiko aparkalekuak egin nahi ditu, oraingoz auzotarrek proiektu horren aurrean hotz samar daudelarik. Nire ustez, San Andresen dagoen auto kopuru handia ikusita, lurrazpiko aparkalekuen irtenbidea onartu beharko genuke.

*Juan Antonio Barriocanal,
San Andres auzoko alkatea.*


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE



MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE


hona hemen...

Aitor Orobengoa (EE)


◆ Donostiako komertzianta bat, **Javier Argomaniz**, 38, izango da *Partidu Populareko* alkategaia Arrasaten. PPko Tolosako zinegotzia da (trafikoa eta Udaltzaingoaz arduratzen da) gaur egun. Autonomikoetan Arrasaten jasotako 523 botuekin zinegotzi bat lortzeko asmatan dator. Baliteke zerrendakideak ere Mondragoekoak ez izatea.

◆ *Izquierda Unidak* ere zerrenda aurkeztu du maiatzeko hauteskundeetarako. Alkategaia **Joseba Ugalde**, 39, izango da. Copreciko langile eta hango Kontseilu Sozialeko lehendakariorde da mondragotarra. Zerrendakideak hauetxek: 2. **Jesus Gil**; 3. **Abel Maestre**; 4. **Paco Duque** eta 5. **Benito Garcia**. Aurreko udal hauteskundeetan ez ziren aurkeztu, baina azken autonomikoetan 250 botu inguru atera zituzten.

◆ **Nekane Iglesias** herrian oso jende gutxi ezagutzen duela eta, **Lanak** eta **Mendiarratxek** txikiteatzera atera zuten joan den asteburuan. Adierazgarria benetan lehen bisita gidatua herriko tabernetara egin izana eta ez udaletxera, ospitalera edo herriko eskolera.



LEIRE ZUBIKARAI 91



30 urte, ezkongabea. Gazteagotan bizi izan zuen giro politizatuaren eraginez sartu zen politikan "II. Mundu Gerraren ondoren langile bakoitzak ere ordubete edo bi eman behar izaten zituen bere aberriaren alde". Ikasketaz injinerua da, baina bokazioz arkitektoa. Kirolzalea da, baina ikustea baino ñahiago du egitea: arineketa eta balonbolea egin eta mendira joan. Marraskilari txarra ez dela uste du, eta akuarelak margotzea gustatuko litzaioke. Pertsonengan malgutasunik eza egiten zaio jasangaitzen, eta elkar hartzeko gaitasuna miresten du gehien. Bere burua emankor eta oso idealistatzaile du, baina ideak bete zalea da. Lanerako gaitasuna azpimarratuko luke. Lagunartekoa, nekatuta dagoenean izan ezik, umore onekoa da. Diruaren atzetik joateko grina aldatuko luke gizartean. Marketingari buruzko liburu bat ari da irakurtzen, eta pelikuletan, *La misión* ikusiko luke berriz. Berriro ere proiektu berriak martxan jartzera ausartzea eskatuko lioke Arrasateko herriari. Arrasate hitz bitan? "Leku itxia baina lanerako gaitasun handikoa"

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Zerrenden aurkezpenak

Azken ordukoak



Javier Argomaniz
PP



Joseba Ugalde
IU



HB Zerrendak aurkezten lehen alderdia HB izan zen, eta Arrano Elkartearen egin zuten.

Aramoioko hautagaiak




J. R. Uribe
EA



EE Monterron aukeratu zuen bere aurkezpenerako Euskadiko Ezkerrak, apirilaren 19an, plenoaren ondoren.




EA Apirilaren 18an aurkeztu zuen Eusko Alkartasunak udal hauteskundeetan Arrasaten aterako duen zerrenda, Monterronen hauek ere.



Mikel Aranzabal
HB



EAJ Arrasateko jeltzaleek Batzokian egin zuten zerrenden eta helburuen azalpena.



Markel Ormaetxea
EAJ



EMK-LKI Partidu berriak lehen aldiz aurkeztu zuen zerrenda bateratua Arrasaten.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABALETA

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Ertzaindegian emandako prentsaurrekoan erakutsi zuten antzemandako droga

9 kilo hatxis atzeman Arrasaten

Angel Garai atxilotua droga trafikoko akusaziopean

Mondragoeko Ertzaintzak pertsona bat atxilotu eta 9 kilo hatxis atzeman zituen astelehenean Arrasaten bertan. Hatxisaren balorea merkatu beltzean 18 milioiko pezetakoa izan zitekeen. Horretaz gain, atxilotuari 6 milioi peseta atzeman zaizkio. Droga Kanariar Irletara bidaltzen zuten, Mondragoeko garrario-agentziak erabiliz.

Droga salerosketan zebilela susmatuz, Arrasateko ertzainak Angel Garai Txixu, 34 urteko mondragoetarraren joan-etorriak bijilatzen hasi ziren joan den otsailean. Berehala konturatu ziren 15 egunez behin edo, pakete susmagarriak bidaltzen zituela Kanariar Irletara, nortasun faltsua erabiliz. Horretarako, Angel Garaik Mondragoeko garrario edo transporte agentziak erabiltzen bide zituena.

Joan den aslelehenean, pakete bat bidaltzeko zegoenean harrapatu zuten ertzainek. Paketean, kalean salduz gero

18 milioi pezetako balorea izango zuten 36 tableta hatxis aurkitu zituzten, denetara 9 kilo eta 100 gramo hatxis. Droga hau Malagako egunkaritan bilduta zertorren eta Kanarietara bidaltzen zen, zeramika baliz bezala.

Atxilotuaren etxean, bestalde, 6 milioi pezeta aurkitu dira, pezeta, marko eta dolarretan. Asteartean, Bilboko Udaltzaingoaren txakur bereziak ekarri zituzten atxilotuaren etxeko bazterrak eta inguruak hobeto miatzeko.

Ertzaintzaren ustez, Angel Garaik hiru urte zeramatzan droga salerosketan. Asuntua da ea bailaran bertan bantzen zuten zehaztea. Angel Garai ostegunean eraman zuten Bergarako epaitegira.

Beste operazio batean, Ertzaintzak kontrabandoko tabako gorria harrapatu zuten astelehenean Eguzki dorreko garrageetan. Ez dago informaziorik, arazoa epailearen eskuetan dagoelako.

Usteak uste

Letrakit erakusketa ibiltariak Lederki erakutsi digunez, lan isila eta eskerka frankismoan Arrasate euskalduntzeko egin zena.

Zorionez, gauzak dexente aldatu dira. Ikastolak, euskal eskolak, gaueskolak, euskaltegiak, euskal komunikabideak, eta Arrasaten erakunde desberdinen artean euskara bultzatzeko sinatu zen Hitzarmenak, AEDrekin batera, euskaraz bizitzeko nahia geroz eta zabalduagoa dagoela adierazten dute.

Gaurko agintariek, hortaz, kontuan hartu beharko lituzkete herri honetan euskararekiko eman diren aldaketak. Ez zen hori gertatu joan den ostiralean batzokian. Euskaraz txarto irakurtzeaz gain, bere partiduaren aurkezpenean euskaraz egindako galderei erdaraz erantzun zien alkategai jeltzaleak. Akaso gure inguruko zenbait administrazio-kontseilutan hori izan daiteke lan egiteko modua, baina ez da onargarri Arrasateko Alkate izan nahi duenarentzat.

Politikoa ez dela xalotasun handiz aitortu arren, Udaletxean politika egitera doan Eusko Alderdi Jeltzaleko zerrendaburu euskaldunari eska dakiok hori, iragan urteak ez dira eta alferrik pasatu.

JOXE ARANZABAL

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Ministeritzako erabakiaren ondorioz Arrasate Bake-Epaitegia izango du bakarrik

Lehen Instantziako Epaitegirik ez Ministeritzak kaleratutako zerrendan Arrasate ez dago

Arrasateko Udalak Lehen Instantziako Epaitegia egiteko duen asmoa oraingoz ez da gauzatuko, Justizia Ministeritzak argitaratutako epaitegi berrien zerrendan Arrasate ez baita agertzen. Erabaki horren ondorioz, arrasatearrak Bake-Epaitegia izatearekin konformatu beharko dira.

Jakina denez, Barruti-Epaitegiak desagertu zirenean, Arrasateko Udalak Justizia Ministeritzari Arrasateko Bake Epaitegia Lehen Instantziako Epaitegi bihurtzeko eskatu zion. Udalaren eskaera, Arrasateko biztanleen kopuruan, bertako industriaren eta ekonomiaren ga-

rrantzian oinarritzen zen. Ministeritzari eskaera luzatzeaz gain, antzerako egoeran zeuden beste herri batzuekin ere harremanak egon ziren. Tartean, Ministeritzatik Udalarari informazio gehiago eskatu zitzaion, eskaera horrek baikor izatera eramaten zuelarik.

Ez Arrasateko Udalak bakarrean egindako eskaerak, eta ezta beste herriekin batera egindakoak, ez dute Ministeritzaren onespenez izan. Dena dela, Udaletxean ez dute esperantzarik galdu, balitekeelako egunen batean Ministeritzak, orain epaitegirik ez daukaten herriei buruzko eztabaida irekitzea.

Bi arrasatear gose greban

Euskal preso politiko askoren moduan, Herrera de la Manchako espetxean dauden Jose Ignacio Gaztañaga eta Luis Mari Azkargorta arrasatearrak gose greban daude. Gose greban hasteko arrazoirik aipagarrienak, kanpotik joandako medikuek bisitatu ahal izatea, espetxean ikasketak burutzeko baldintza egokiak ezartzea, familiakoak ez direnei bisitak egiteko baimenak ematea, eta "vis a vis" a edukitzea lirateke. Aipatutakoak onartuta, baina, kasu askotan, betetzen ez diren eskubideak dira. Gose grebari ekiteaz gain, bi arrasatearrek Jesus del Rey Reguillos espetxeko zuzendariaren aurkako salaketa egin dute epailearen aurrean.

JAIOTZAK

Zangitu Juaristi, *Ane*. Apirilaren 12an.
Ganboa Castillo, *Ariane*. 14ean.
Martinez Rivar, *Eider*. 19an.
Matilla Nerezueta, *Itziar*. 18an.
Letona Elizburu, *Ander*. 19an.
Martin Gomez, *Alberto*. 19an.
Iglesias Herrero, *Eneko*. 20an.
Mancha Begiristain, *Jokin*. 20an.
Bernal Julian, *Nekane*. 20an.
Algaba Sanz, *Eneritz*. 20an.
Escobales Castro, *Mikel*. 21ean.

EZKONTZAK

Antonio Murillo & Garbiñe Letona.
Apirilaren 13an. Elizaz.
Angel M^a Armendariz & M^a Jose Lozano.
20an. Elizaz.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABAETA


Tfnoa: 79 91 84

URONDO
elektrizitatea




- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE




Kontzeziño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburua 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Datorren ikasturtean eraikin berriaren egongo dira beharbada

Umezaintzak Udalaren laguntza

Udalarekin hitzarmena sinatuko laguntzarako

Maiatzaren hasieran egingo den plenoak onartu egingo du San Josepen Umezaintzak eraikiko duen eskola berriari dirulaguntza ematea. Haurtzaindegiekin sinatuko duen hitzarmenaren ondorioz, Udalak 48 milioi emango dizkio Umezaintzari hainbat urtetan banatuta, eta aldi berean haur eskolak eskatutako mailegua abalatu du. Horrez gain, lau urtetan zehar beste dirulaguntza batzuk eskainiko zaizkio, sinatutako akordioan jasotzen denez. Eraikuntzaren kostu osoa 130 milioikoa

izango da, eta horietatik 41 jarri beharko ditu Umezaintzak.

Umeentzako eskolan aspalditik zegoen eraikin berri baten beharrean, alde batetik oraingo egoitza biak txiki geratu direlako, baina batez ere Altamiran txiki-txikiak eta San Josepen kokortuagoak banatuta egotean, antolaketa aldetik hainbat arazo sortzen zitzaizkiela eta. Eraikuntza lanak otsailean hasi ziren, eta gauzak behar bezala joanez gero bukatuta izango da hurrengo ikasturterako.

Errolda eta Padroia

Oraindik ere zentsoaren paperak bete ez dituzten arrasatearrei jakin arazien zate apirilaren 29an arratsaldeko 6.30etan amaituko dela epea. Oraindik lan hori egin barik dauden guztiei, beraz, Azoka kaleko Ietik pasa daitezela, orain Arrasate Press eta ATB dauden lekutik, Gurea zinemaren paretik sartuta. Inprimakiak betetzera datozenean honako agiriok ekarri behar dituzte: Famili liburua eta etxeko guztien karneteko zenbakiak. Ordutegia: 9etatik 1era goizez eta 3etatik 6.30etara arratsaldez.



☐ Haur danberrada

SUDCEk herriko neska-mutiko denei dei egingo die haurren danberradarako izenak eman ditzaten. Izen ematea apirilaren 29, 30 eta maiatzaren 2an egin daiteke, arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara SUDCEko lokalean, Pablo Uranga kaleko 4. zenbakian.



BEROLAN

S. LORENTZO 58, 4. ESK.
ONTTI TFNOA 78 29 63

PROIEKTUAK, INSTALAZIOAK:

KLIMATIZAZIOAN
ELEKTRIZITATEAN
SUTEEN-AURKAN
LEGEZTAPENAK

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a


Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.


• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irltara. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
JUANAN BEITIA
 Telefonoa:
ITZIAR RUIZ DE AZUA
 Erlojua:
ANDER AGIRREURRETA
 Afarria:
JOSUNE ELKORO




• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Zein
auzotan
dago
San
Balerio
ermita?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KATAIDE
JATEETESA

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



MECA
tailerrak


Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2
ARRASATE



Joan den ostiralean inauguratu ziren Leintz Gatzagako Udaletxea eta pilotalekua. Inguruko udaletxetako alkate-zinegotziak, Diputazioako ordezkariak eta herritar ugari bildu ziren ekitaldira, eta hainbeste gonbidatuk ezin izan harrera hobea. **Eugenio Otxoa** "Gerra" Gatzagako alkateak eman zien ongietorria, agurra dantzatuz. Batek baino gehiagok komentatu zuen: hau bai alkatea, hau!




Umezaintzako neska-mutikoengana joan ginen publizitate baterako argazkia ateratzera. Gero publizitateko erabili ez arren, argazkia oso polita iruditu zitzaigun, eta hori doa. Dena dela, argazkiari soinua falta zaio, "pa-ta-ta-txo-ri-zo" esaterakoan ateratzen zituzten uluak, alegia. Gortzeko modukoak!



Kanposantu berriaren **maketa ikusgai** dago egun batzuk direla. Udaletxeak Erdiko Kalera begira duen lehioan ikusi ahal izango duzue, xehetasun osoz eginiko maketa.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



◀ San Prudentzioko

Gurutze Gorrian sekulako arropa eta janari pilak ikus daitezke egunotan.

Inguruotako jendeak

kurdoei laguntze-

ko eman dituztenak ikus

daitezke. Herri hark bizi

duen egoera latza ikusita,

asko dira zerbait bidalt-

zeaz pentsatu dutenak.

Eskertzekoa, zalantza

barik.

Izen
PROPIOAK

● **On Frantzisko Arrizabalaga**, 75, Arrasateko San Juan Bataiatalearen parrokiako apaizak urrezko ezteiak egin berri ditu. 1941ean apaiz egin ondoren, lau urte egin zituen Lekeition organojole, beste zortzi Kuban, eta harrez gero Arrasaten dago.

● **Iñigo Roldan**, 18, atxabaltarra izan zen joan den asteburuan Zarautzen izan zen txirindulari frogan irabazle, erlojuaren aurka eta errepidean. Iñigo Estatuko selekzioan kontzentratuta egon da, eta Euskadikoarekin Frantziako froga batetan bigarren geratu zen.

● **Gotzon Velez de Mendizabal**, 49, trinitario arrasatearrak zilarrezko ezteiak beteko ditu fraile egin zenetik. Algortan, Santanderren eta Salamancan ikasi eta gero, Austrian egon zen ikasketak sakontzen. Azken urteak Errenterian eman ditu, hango parrokia batean.

Zotz-Motz lehiaketaren sari banaketa **Zubiaga bitxidendan** izan da aste honetan. **Mari Karmen Osinalde**, **Idoia Oregi**, **Jasone Elkorobarrutia** eta **Nikolas Iriarteri** egokitu zitzaizkien lau sariak. Zorionak eurei, eta besteok segi galderei erantzuten. ▶



GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

Goikobalu urtetako hutsunea betetzen

Herritar askok Goikobalu sortu baino lehen Arrasaten izan ziren koruen izenak gogoratuko ditu. Era berean, urte batean sortu eta hurrengoan nola desagertzen ziren ere jakingo du. Orduko esperientzia duten askok eta inongo eskarmenturik ez duten beste askok, Arrasaten korua finkatu dadin egunero egiten dute lana.

Horrela jaio zen

"Parrokiakoa, Danok Abesbatza eta Arrasate Musical Abesbatzaren ondoren, Mondragoen izugarrizko hutsunea izan zen urte batzuetan. Duela pare bat urte, SUDCen ekimenez, koru berriat egiteko beharra planteiatu zen. Kantuan ibilita geundenon artean, eta Ikastolako koruarekin ibili ziren beste batzuen artean Goikobalu osatu genuen. Jose Ignacio Ruiz de Alegriari taldea zuzentzeko eskakizuna luzatu genion, eta berak onartu egin zuen".

Goikobalu sortu zenetik gaur egunera eta gauza asko aldatu dira, denbora laburra pasatu bada ere. Hainbat tokitan kontzertuak emateaz gain, Galeseko bidaia barne, Ejea de los Caballeros hiriko kantu lehiaketa irabazi dute. Dena dela, Goikobaluk urte t'erdian egin duen aldaketa hori baino sakonagoa dela diote koruko partaideek, astero lana egiteko dina-

mikan eta kantatzeko eran aldaketa onuragarriak egin omen bait dituzte.

Dinamika baten beharra

"Etorri nintzenean, -dio Jose Ignacio Ruiz de Alegriak- nire asmoa korua martxan jarri eta gero alde

egitea zen, baina denbora pasatu ahala, koruaz eta Arrasatez maitemintzen joan naiz eta orain ezinezkoa egingo litzaidake albora uztea. Edozein modutan, etorri nintzenean argi utzi nuen jendearengan konformismo jarrerak nabaritzen gero, taldea utziko nuela. Oraingoz,

gero eta hobeto kantatu ahal izateko, jendea ondo ari da lanean.

Hona iritsi, eta alde bate-tik kantuan ez zekien jendea aurkitu nuen, bestetik ahots ona baina bizio ugari zituen jendea. Beraz, egindako lana zentzu horretan egin da, ahots gazteei zentzu musikala eman, eta erdi-galduta zeuden ahotsak berreskuratu".

Goikobalun dauden gehientzat koru batean kantatzea ez da berria, baina, eurek diotenez, lana egiteko era bai. Teknika lantzea, kontzertu guztiak garrantzitsuak direla barneratu, hutsik egin gabe asteen bi aldiz entseiatzera joan, beharrezkoa izanez gero igandetan entseiatzea, ahotsaren teknika lantzeko klaseak eman... beste batzuen artean, Jose Ignacio Ruiz de Alegriak ekarritako berrikuntzak dira. "Lan guzti horren ondorioz etorri zen Ejea de los Caballeros hiriko kantu lehiaketaren saria, horren ondoren jendeak Goikobalun lanean seriotasunez gabiltzala jakingo du. Gutxi gorabehera laurogeitamar lagun gaude




Igandetan biltzeko ere, inolako eragozpenik ez dute izaten Goikobalukoek

lehiaketan uniformerik gabe atera ginen bakarrak izan ginelako”.

Eta gero zer?

Agian lehen aipatu da, baina behar bada merezi du errepikatzea lan-dinamikaren arloan Goikobalu orain arte bezala jarraitzekotan dela, asteroko lanari jarraitzekotan. Taldeari dagokionez, Goikobalun jende berria hartzekotan dabilta, jende gaztea eta musika-maila ona ematen duena.

“Koruaaren etorkizuna zein izango den, koruaaren bilakaerak berak emango digu, musika mailan gora egiten dugun neurrian, aurrerantza joango gara”.



Ruiz de Alegria berari jarri beharko diote txapela

Goikobalun, eta entseioetara %95a joaten gara, hortxe dago taldeko arrakastaren giltza. Lan dinamika hori askotan gogorra egiten zaigu, baina argi dago ondo kantzeko beste modurik ez dagoela eta gainera ohitura hartu arteko kontua da, behin ohituz gero...”.

Goikobaluko zuzendariaren ustez, bakarrik urte t'erdi kantuan daraman koruarentzat Ejea de los Caballeroseko lehiaketa irabaztea izugarritzko lorpena da. Berak zioenez, hemendik beste urte t'erdira, behintzat asteroko lanean orain bezain fin ibiliz gero, Ejea de los Caballerosen eskaintako saioaren kalitatea asko hobetuko litzateke.

Diruz gaizki

Kulturaren edozein arlotan ari diren talde asko bezala, Goikobaluren arazorik handiena ekonomia da, diru-iturririk izan gabe oso zaila bait da ekonomikoki ondo ibiltzea. Urte t'erdiko bizitzan, Lan Kide Aurrezkia eta Arrasateko Udalaren laguntza txiki batzuk izan ezik, Goikobalun dabiltzanek euren poltsikotik jarri behar izan dute dirua.

“Goikobalu koruan gaudenok, batazbeste 50.000ren bat pezeta jarri ditugu geure poltsikotik. Lanean ari garengentzat hori ez da gehiegi, baina ikasle-jendearentzat, gazteentzat orohar, izugarri-

zko dirutza da hori, afizio handia behar da.

Orain artean ez dugu diru eskakizunik egin, baina Ejea de los Caballeroseko lehiaketa irabazi eta gero, korua serioan doala erakutsi dugu. Beraz, laguntza eskatzeko asmoa daukagu. Berez kantatzea ez da garestia izaten, baina 90 pertsona mugitzea, egonaldiak antolatzea, kantu irakasle ordaintzea, partituren fotokopiak egitea... bai da garestia eta horretarako laguntza behar dugu. Era berean, entseietarako tokia ere beharko genuke, orain katekesi lokaletan gabilta eta. Arropak erostea ere gustatuko litzaike, esaterako Ejeako

%95eko diferentzia

Goikobaluk Ejea de los Caballerosko kantu-lehiaketan lortutako garaipena zertan oinarritu ote den, galdetuko zuen seguraski arrasatear batek baino gehiagok. Berezitasunen bat izango al du Jose Ignacio Ruiz de Alegriak kantu lehiaketa honekiko? Izan ere, orain Goikobalurekin irabazi duena, Eskoriaizako Gorosarri taldea zuzentzen zuenean ere irabaztea lortu zuen. Egun on bat izan ote zen?

Dirudienez, egun bateko zorteak eta zuzendariak lehiaketarekiko duen berezitasunak ez dute zerikusirik izan. Arrazoia beste bat da, honelaxe adierazten zuen zuzendariak: “Goikobalun 90 pertsona daude, eta entseietara gutxienez %95a etortzen da, gainera falta direnak arrazoiren batengatik falta izaten dira. Hortxe dago arrakastaren gakoa, egun batean hasitako lanari, astero-astero seriotasunez eta ilusioz ekitea”.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

ARRASATE

UMEEN JANTZIAK

Otalora 29, Tfnoak: 77 05 61
ARRASATE



Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko
Kutxa**




Adelaida txapeldun!!!

ASTORE

KIROL EKIPAMENDUAK

**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12



iKER



SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43

BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42



Finala jokatu aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatu zuten **Zuloek** eta **Artzankos**ek. Ohizko ordu betea jokatu eta gero markagailuak berdinketa erakusten zuten. Ondorioz, penalti jaurtiketa egin behar izan zen. Penaltietan jaurtitzailleak atezainak baino hobeto ibili ziren, baina norbaitek huts egin behar zuela eta, azkenik Zuloak taldekoek ez zuten asmatu.



Adelaida eta **Bar Kajoi** taldeek finalari hasiera eman aurretik, Zaldibarko futbito txapelketako antolatzaileek omenaldia eskaini nahi izan zieten **Mikel Otxoa** eta **Jesus Morenori**. Talde bietako jokalariek Mikel Otxoa eta Jesus Moreno txalotu zituzten, **Txispasek** eta **Porruk** sariak ematen zizkieten bitartean. Argazkian Mikel Otxoa dugu, Porruren eskutik saria jasotzen.

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489



Kajoi taldeko jokalariek, behin eta berriz golaren bila ari izan ziren partidua berdindu nahian, baina **Adelaida**koek defentsa segurua erakutsi zuten.



Golak eragiten dituen erreakzioak: alde batetik **Adelaida** taldeko jokalararen poza nabari daiteke, baita **Kajoi**ko jokalarien nahia eta ezina ere.



Horrenbeste partidu jokatu ondoren, larunbatean Zaldibarren bildutako askok ondo merezitako sariak jasotzeko aukera izan zuten. Argazkiak erakusten duenez, antolatzaileek kontu handiz gorde zituzten sariak, euriaren eraginetik babestuz. Eurek, txapelketa hau antolatu dutenek, ez zuten inolako saririk eraman. Egia esan, inork merezia edukitzekotan, horiek Zaldibarko txapelketa antolatu duten guztiak izan dira.

TELLERIA

autoeskola

• Mitarte 18, Tfnoa: 79 53 51 **ARETXABALETA**


• Juan Carlos Gerra 2, Tfnoa: 79 18 39 **ARRASATE**



● **Kajoi**koek bigarren zatian partidua berdindu eta gero, **Adelaida**koek ahalegin handiak egin zituzten aurrez zeukaten abantaila berreskuratzeko, azken emaitza lortu arte: 5 eta 2.



● Partiduan sartu ziren zazpi goletatik sei bigarren zatian iritsi ziren. Atezainek lan handia izan zuten, batez ere argazkian agertzen denak, **Bar Kajoi** taldekoak noski.



● Igande arratsaldetan Atxabalpen sarri egoten diren bezala, larunbat arratsaldean **Txispas** eta **Porru** Zaldibarren izan ziren. Sariak banatzeaz gain, Txispas pirotekniaz arduratu zen.




● **Xabier Zubizarretak** lan ugari egin behar izan zuen sariak banatzeko orduan, sari asko bait zeuden. Lan horretan **Antton Zumalde** eta **Txatillok** lagundu zioten.

ZENBAKI
SARITUA:
68.233

KAJOI
TABERNA

ERDIKO KALE 22, TFNOA 79 32 27



Etorkizunaren erronka

Gertu dagoen erakundea dugu


kutxa, garai berriei aurre egiteko.

Teknika- eta giza baliabiderik
eraginkorrenekin, gailentzeko.

Beharrian berriei egokituriko maila
bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.

Alor guztietan aurrera egiteko.

Etorkizun gero eta lehiakorrago
baterantz.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

ASTELEHENA


ASTEARTEA

ASTEAZKENA

OSTEGUNA

5

6



- Langilearen Eguna.
- San Andres auzoko jaiak.
- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin. Gaez: Puy (Bergara)

- Helduentzako bere ikastar
- Hans C. Anderenari irab
- liburuen erakusketan Mont
- Goardiako farmazia. Egunez
- Santamaina.
- Gaez: Guallar (Bergara)

6

- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola. Gaez: Camacho (Bergara)

7

- Hitzaldia: Bizibide alternatiboa. AEDn. 19.00.
- Pilota. Deba arroa txapelketa: Arrasate-Bergara. Musakolan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin. Gaez: Puy (Bergara)

8

- Hitzaldia: Bizibide alternatiboa. AEDn. 19.00.
- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina. Gaez: Guallar (Bergara)

- San Pankrazio egun osp
- EPPn. Rock kontzertu E.H.
- Hezur beltzak. Kurio saski
- kantran.
- Goardiako farmazia. Egunez
- Gaez: Estella (Bergara)

13

- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin. Gaez: Puy (Bergara).

14

- Hitzaldia: Abortoa. AEDn. 19.00.
- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina. Gaez: Camacho (Bergara).

15

- San Isidro jaiak Musakolan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala. Gaez: Estella (Bergara).


- Leopoldo Maria Berrovan p
- erezitala. Monterron. 19.00.
- Goardiako farmazia. Egunez

20



- Erakusketa: Arrasateko tailagileen elkartea. Monterron. 31ra arte.
- Mendi Astea. Hitzaldia: Monterron. 19.30. Besaide Elkartea.
- Goardiako farmazia: Santamaina.

21



- Besaide parkeko berrikuntzaren proiektuaren aurkezpena. Monterron. 19.30.
- Goardiako farmazia: Maala.

22



- Filme emanaldia. Monterron. 19.00.
- Goardiako farmazia: San andres.

- Diapositiboa erakusketan. Mont
- Goardiako farmazia. Egunez

27

- Goardiako farmazia: Maala.

28

- Municheko abesbatzaren kontzertua. Parrokia. 20.00.
- Goardiako farmazia: San Andres.


29

- Goardiako farmazia: Ferrerias.

- Goardiako farmazia. Egunez

OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA

2



3

- Diapositiba emanaldia. Monterron. 18.00.
- Zinea: Delicias turcas. Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres.
- Gauetz: Estella (Bergara)

4

- Eskola arteko IV. Abesbatza Topaketa. Amaia. 16.30.
- Umeentzako bideo emanaldia. Monterron. 16.00
- Rock jaialdia. Zakarrak, E.H. Sukarra, Su ta gar. Kirodegia. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias.
- Gauetz: Mozos (Bergara)

5

- Talde erakusketa. Monterron. 14era arte.
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz.
- Gauetz: Mozos (Bergara)

9



10

- Zinea: El imperio de la pasión. Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerias.
- Gauetz: Mozos (Bergara)

11

- San Isidro jaiak Musakolan.
- Umeentzako bideo emanaldia. Monterron. 16.00
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz.
- Gauetz: Camacho (Bergara)

12

- San Isidro jaiak Musakolan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola.
- Gauetz: Camacho (Bergara).

16



17

- Zinea: Ordinaria locura. Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

18

- Umeentzako bideo emanaldia. Monterron. 16.00
- Goardiako farmazia: Musakola.

19

- Pentekostes jaiak Bergaran.
- Goardiako farmazia: Erguin.

23



24

- Zinea: Cuentos inmorales. Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Musakola.

25

- Umeentzako bideo emanaldia. Monterron. 16.00
- Goardiako farmazia: Erguin.

26



- Goardiako farmazia: Santamaina.


30

31

- Goardiako farmazia: Erguin.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Galtzaile zein irabazle, elkarrekin agertzeko eragozpenik ez

Txapelketa guztian zehar egin duten moduan, Adelaida eta Bar Kajo taldeek kiroltasunagatik ezagutuko den finala jokatu zuten Zaldibarko futbito txapelketan. Egia esan, partidua ez zen oso ikusgarria izan, bigarren zatian lehenengoan baino ikusgarriagoa, baina bai emozioz beterikoa. Hasiera hasieratik jendea partidua Adelaida taldearen alde erabakiko zela somatzen hasi zen, baloia

mugitzeko orduan Kajoikoek baino trebetasun handiagoa erakusten zuten eta.

Dena dela, Bar Kajoikoak txapelketa honetan zerbaitegatik ezagun izan badira erakutsi duten grinagatik izan da. Ondorioz, ez da harrizkoa Adelaidak erakutsitako mailari Kajoikoek sakrifizioa jartzea aurrean. Azkenean, onena irabazle, baina guztiaktxapeldun.

ZEINEK IRABAZI DU ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA?

Erantzuna.....

Moztu eta bidali erantzuna TRIKITI dendara edo KAJOI tabernara. Partaideen artean **PANASONIC J 35 BIDEO**aren zozketa egingo da.

Trikiti

**PANASONIC J 35
BIDEO bat zurea
izan daiteke!**

SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
Faxa: 79 88 56 ARRASATE



Nekatuta, baina gustora

Antolatzaileen balorazioa baikorra da, gauza batzuk hobetu beharra ikusten badute ere

Txapelketako lehen urratsak

Zaldibarko frontoian antolatutako futbito txapelketako historia txiki bat egiteko orduan, derrigorrez atzera egin beharra dagodenboran, 1956. urtera gutxi gorabehera. Aipatutako datan "Ucea" izeneko futbolzelaia itxi zen, itxiera horrek Zaldibarko futbito txapelketaren antolakuntzan eragin zuzena izan zuelarik. "Ucea"ko futbolzelaia itxi eta gero, "Juventud Deportiva Mondragon" zeritzon taldeak, lehenengo aldiz antolatu zuen Zaldibarko frontoian futbito txapelketa.

Zaldibarko futbito txapelketa Mondra taldeko harrobi bihurtu zen zenbait denboralditan. Izen batzuk gogoraraztea besterik ez dago: Esperesate, Carabias, Errasti anaiak, Mercader, Jon Arriaran, Ugalde... Mondran jokaturakoak eta Zaldibarko futbito txapelketatik sortutako jokalariek



Hauek izan dira Zaldibarko Txapelketa berreskuratu dutenak

"Juventud Deportiva Mondragon" zeritzonari kuadrilek, Zaldibarko txapelketako antolatzaile bihurtu zirenean, hartu zioten lekukoa. Garai horretan kuadriletako ordezkariak biltzen

ziren, eta urtero-urtero txapelketa antolatu. Gogora daiteke orduan, 80. hamarkadaren hasieran, Zaldibarko futbito txapelketan hogeitamarren bat taldek hartzen zutela parte, guztira

400en bat lagun biltzen zirelarik.

Sei urte geldirik

1984. urtean Zaldibarko fut-

dnas Berakatz



OÑATI. 112 Post.

Tfnoak:
78 32 15 (Monika)
79 13 27 (Nestor)
78 17 66 (Mixel)
79 78 65 (Aitor)



bito txapelketak sortu zenetik orain arte izan duen etenaldi bakarra ezagutu zuen, urte txarra beraz Zaldibarko txapelketarentzat. Aipatutako urtean, Arrasateko Udalak Zaldibarko frontoian berrikuntzak egiteko akordioa hartu zuen: akordioaren arabera, frontoia ididematarako egokitu zen. Berrikuntzak egin ondoren, zolua nola gelditu zen ikusita, argi zegoen Zaldibarren ezinezkoa zela futbitoan egiterik.

Sei urtetan Zaldibarren ez da futbitoan egin, bertako horma eta zolu zaharrek ez dituzte jokalarien korrikaldiak eta ostikokadak ikusteko aukerarik izan.

Zaldibarko hutsuneaz, bertan jokaturakoez gain, Udaltxean ere ohartu ziren eta irtenbidea asmatzen saiatu. Gazteriarentzat entrenigarri eta motibagarri zitekeelakoan kontuan hartuta, Udal ordezkariak Zaldibarko txapelketan antolatzaile lanetan ibilitakoekin jarri ziren harremanetan. Lehen kontaktu horretatik ateratako ondorio zuzena, Zaldibarko zolua berregokitzea izan zen.

Antolaketa prest

Behin zolua egokitu eta gero,



Antolatzaileak ahalik eta sari gehien eskuratu zituzten final egunerako

Zaldibar futbito jokalarien ahalginak hartzeko prest zegoen, txapelketa antolatzea falta. Duela urte batzuk antolatzaile zirenek, iazko urtean ere lan berari ekin zioten, jende berriren laguntzaz noski.

Monterronen egindako lehen bileran, ez ziren 900 lagun bildu, baina bai ehundik gora. Lehen bilera horretan txapelketaren berri eman zen, jokatzeko baldintzak ezarri, antolamendu lanetarako jendearen laguntza

eskatu, eta izenak emateko epea finkatu.

Handik egun batzuetara Zaldibarko txapelketan 60 taldek parte hartuko zutela argitaratu zen komunikabide desberdin guztietan, hau da 1.000 lagunek gutxi gorabehera. Txapelketa martxan zegoen.

Balorazia egiterako orduan, baikorra bada ere, sei urteren ondoren antolatzaileek eragozpenak ere aurkitu dituzte. "Hainbeste talde egonda, txapelketako lehen fasean Zaldibarren ezezik, beste toki batzuetan ere jokatu behar izan da, horrela lana handitu egin delarik. Arbitro izatea ere ez da batere onuragarria izan, hartutako erabakiak zuzenak ez zirela pentsatzeagatik askotan ikusle zein jokalarien haserreak jasan behar izan dituztelako.

Bestalde, gastuei aurre egiteko babesle bila ibili behar izan gara. Dena dela, aurtengo erantzuna kontuan hartuta, txapelketak erakarrirako ikusle kopurua eta herritarren artean sortarazi duen interesa ikusita, aurrera egiteko beharra sentitzen dugu".

Argi dagoenez, datorren urtean ere Zaldibarren futbito txapelketaren beste edizio berri bat burutuko da.

JMA JMA



Txutak

Mila laguneren konpromezua

Sei urteko etenaldiaren ondoren, Zaldibarrek badu txapeldun berria, *Adelaida* taldea hain zuzen. Merezi ez merezi, txapelketa erraztasunez irabazi zuen eta beraz, zorionak eman beharra besterik ez dago.

Zaldibarko futbito txapelketako balantze edo balorzioa egiterako orduan, kanpotik ezagutu duen baten begietatik begiratuta, atentzioa ematen duen gauza partaidentzarena da.

Mila lagunek parte hartzen duten txapelketarik, Zaldibarko antolatu arte, ez nuen ezagutzen. Arrasatek 25.000



biztanle dituela jotzen bada, normalean futbitoan gizonzkoek egiten dutela suposatuz joz gero (hau da, biztanlegoaren erdia baino gutxiago,

beraz 12.000 jokalarik posible), eta emanez gero (adinagatik) erdiak baino ezin dutela jokatu, argi dago sei jokalarik potentzialetik batek Zaldibarko txapelke-

tan jokatzeko aukera izan duela. Aukeratzeaz gain, txapelketatik kanpo gelditu diren taldeen arabera (60tik 3 bakarrik), argi dago aukeraketa ez dela nolana hikoia izan, konpromezua hartu eta betetzeko.


Esandako guztiagatik, aipagarriena, eta niretzat harrigarriena, jendeak txapelketareriko hartu duen konpromezua izan da.

Alde batetik hori, eta bestetik antolatzaileek 1.000 lagun horiek gidatzeko egin duten lana, datorren urterako antolatze lanetarako laguntza gehiago eskatzen bazuten ere.

JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA. S.A

Gipuzkoa Etorb. 32, Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE



ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

Nekane San Migel

“Epaitegietan
hoztasuna neurtu
egin behar da”

Nekane San Migelek 15 urte egin ditu abokatu lanetan, eta orain epailetarako oposaketak atera ditu. Hiru hilabetez Madrileko Praktika Judizialeko Eskolara joan beharko du orain, eta udazken alderako jakingo du zein epaitegitara bidaliko duten.

— Aldaketa handia izango da, abokatutzatik epaile izatera pasatzea.

— Orain arte eskatzen eta eskatzen ibili naiz urtetan, eta orain erabakitzea tokatzen da. Aldaketa handia izango da abokatuaren eskatze lanetik erabakitzea pasatzea, errazagoa bait da eskatzen ibiltzea. Egia da, gainera, abokatuok batzuetan arrazoia dutelako defenditzen ditugula bezeroak, eta bezero direlako beste batzuetan. Orain gauza horiek ahaztu eta arau bakoitza nola aplikatzen den ikusi beharko da. Gero niretzako gorputz ezezaguna da, eta kanpotik gauza asko ikusten da, baina noraino diren egia ez dakiten. Non tokatuko ote zaidan ere beldur naiz, ze oraingoz bi urtetan ezin izango naiz Gipuzkoan sartu, bertan kolegiatuta egon naizenez.

— Epaile izendatzeak abokatutza uztea dakar. Inkonpatibilitate gehiago ere bai?

— Bai, abokatu lanean ezin izango dut segitu baina horrez gain beste inkompatibilitate asko ere ezartzen ditu legeak. Fiskal ere ezin da izan, politikan ere ezin da sartuta egon: nabarmenki ezin da alderdi bateko partaide izan. Nik ez dut arazorik izan, inoiz ez naizelako alderdi batean izan.

— Malagako epaileekin gertatutakoari zer erizten diozu?

— Lehengo kasua lotsaga-



ria, baina bigarrena niretzat oraindik lotsagarriagoa. Uste dut edozein boterek indarra edukitzeko jasotzeko modukoa izan behar duela, eta nahiko penagarria iruditzen zait desakato hori delito moduan ematea. Azken batean pertsona batek eritziak ematea, kritika gogorrak egin arren, edozein sistema demokratikoren oinarria da. Ni benetan harritu egin nau. Garzónék arrazoia zuen esatean, alarma sozial handiagoa sortzen duela Santamaria horregatik barruan egoteak, esan duenak baino. Azkenean bere eritzia da, eta horregatik ez da inor kartzelatan sartu. Edozein estruktura,

gainera, kritikak jasateko ahalmena duen neurrian da indartsua. Erizpide batzuk finkatuta edukita onartu egin behar dira kanpotik egindako kritikak eta hori onartu egin behar da, bestela botere judizialaren ahulezia besterik ez da egiten.

— Abokatu ibili zaren artean, nola ikusi dituzu Euskal Herriko epaitegiak?

— Bi alde ikusiko nituzke: alde batetik, momentu honetan arindu egin da prozesua, epaitegi gehiago egin direlako batez ere, eta bestalde arlo batzuetan konfiantzibitatea asko jaitsi delako, lan arloan adibidez. Gero beste aldetik, sententzia aurrerakoiak

ematea eta euskararen inguruko auzietan, lehengo antzekoa da egoera. Orokorrean panorama tristea da.

— Hala ere, kalean dagoen sentsazioa prozesu motelarena da.

— Bai, baina hor beste gauza bat gertatu da. Orain urte batzuk inor ez zen abokaturangana joaten, eta neurri berean epaitegitara. Mondragoen lehen ez zegoen bat ere ohiturarik eta konparazio baterako, Eibarren medikuarengana joaten dira gripea daukatenean eta Arrasaten heriotz ziurtagiria eskatzeko, gauza ustel-ustel eginda dagoenean, eta zereginik ez dagoenean. Azken urteetan asko aldatu da egoera, eta jendeak kontaktu gehiago du justiziarekin. Baina neurri berean desilusioa ere handiagoa izan da. Nahiz eta asuntoa irabazi, desilusioak hartzen dira. Epaileek, giza osagarria ikusi eta espedientearen atzean pertsona batzuen sufrimenduak daudela konturatzen ez diren bitartean, ez dago zereginik. Pertsona horri epaitegira joateko erabakia hartzea asko kostatu zaiola pentsatu behar du. Justizia kontuetan ere hoztasunaren neurria hartu egin behar da, alde batetik gauzak hoztean begiratu beharko diren arren, neurrien barruan, papearren ordeztu pertsonak ikusiaz. Gero beharbada niregatik gauza bera esango dute, edo barrutik zailagoa izango da.


— Prozesuak arinagotzeko, zer egin daiteke?

— Prozedimendua aldatzea garrantzitsua da, zer orain eskakizun bakoitzerako prozedimendu bat izateak asko astuntzen du prozesua. Beste aldetik epaitegi gehiago jartzea beharbada komeniko da, nahiz eta hori araututa egon. Bestalde, epailetara aurretik beste aukera batzuk agortzeko aukera eman behar zaio jendeari, eta hori heziketa kontua da.

— **Zezenak barreraren bestekaldetik ikustea interesgarria da**

Brontzezko domina Arrasate Atletiko Taldeari

Joan den asteburuan, Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Arrasate Kirolakeko atletek izugarritzko lana egin zuten, taldeen sailkapen orokorrean hirugarren postua lortu zutelarik. Donostiako bi taldeak izan ezik,



21 atleta joan ziren Arrasatek

hau da Erreala eta Donostiako Atletikoa, probintziako gainontzeko guztiak atzean gelditu ziren.

Gipuzkoako txapelduna

Proba	Nor	Egindako marka	Postua
• 10 km. ibilketa	Jose Antonio Fuentes	52. 33. 6	4.a
• 400m. hesiak	Juan Carlos Martin	58.88	2.a
• 100m.	Lorenzo Avila.	11.52	3.a
• Altuera jauzia	Alberto Iriarte	1'86	2.a
• 400m.	Josean Gay	50.60	1.a
• Disko jaurtiketa	Mikel Iturbe	35'44	3.a
• 1.500 metro	Alex Saavedra	4.18.2	7.a
• Jauzi hirukoitza	Jose Luis Irizar	12'02	7.a
• Mailu jaurtiketa	Aitor Urizar	35'02	4.a
• 10.000m.	Jabier Mentxaka	32. 19. 6	4.a
• 4x100	Arrasate Kirolak	44.61	3.a
• 110m. hesiak	Carlos Vitoria	18.59	3.a
• Pisu jaurtiketa	Aitor Bergaretxe	10'67	4.a
• Txabalina	Ignacio Maizbide	53,50	1.a
• 200m	Aitor Arnaiz	23.03	3.a
• 5.000m	Alfonso Luelmo	15.52.9	3.a
• Luzera jauzia	Mikel Uribesalgo	6'60	2.a
• 800m.	Gabriel Saavedra	2.06.31	7.a
• 3.000m. oztopo	Luis Fernandez	9.56.1	3.a
• 4x400	Arrasate Kirolak	3.28.83	2.a

Erreala izan zen 151 puntuz, 2. Donostiako Atletikoa 118 puntuz, 3. Arrasate Kirolak 110 puntuz, 4. Bidasoa 74 puntuz, 5. Tolosa 73 puntuz, 6. Eibar 72 puntuz, 7. Ordi-

zia 69 puntuz, eta azkenik Erreterria 48 puntuz.


Gipuzkoako txapelketara Arrasateko taldeak 21 atleta eramán zituen, zaharrena Mentxaka 35 urterekin, gaz-

teenak Alex eta Gabi Saavedra bizkiak izan zirelarik, 16 urtekoak. Hogeitabat horietatik 15 arrasatearrak izan ziren, 3 bergararrak, 2 atxalbatarrek, eta oñatiar bat.

Txirrindulariak bikain

Arrasateko atletak ondo ibili ziren bezala, txirrindulariak ere ondo baino hobeto ari izan ziren joan den asteko probetan, maila guztietan gainera.

Gaztetan, Zarautzeko proban, Iñigo Roldanek irabazi zuen lasterketa eta Ruben Ramosek hirugarren postua lortu. Kadete mailan, Lazkaon Josemi Elizburuk ere irabaztea lortu zuen. Alebin eta infantil mailetan berriz, Oiherr Garro eta Mikel Roldan, ordena horretan, 4. eta 7. izan ziren.



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea


Eguneko menua eta karta

AGUSTIN

ERRASTI

Piraguaz errekak jaisten

PODIUMA



Agustin Errasti aldiz piragua batera lehen igo zenetik, baka- rrik hiru urte pasatu dira. Urkulun piraguan ibiltzen ikasteko ikastaroak antolatatu ziren, eta beste zereginik ez zuenez, Agustinek izena eman zuen. Hain denbora laburrean, Agustin Errasti ikasle izatetik irakasle izatera pasatu da. "Ikastaroa egin ondoren, Iruñeko Natura kolektiboarekin harremanetan jarri nintzen eta alpino erako piraguismoa egiten hasi, hau da ibaiak jaisten. Ibaien jeitsiera ikusgarri gustatu zitzaidanez, piragua bat erosi nuen. Orain Arrasateko talde batekin ibiltzen naiz, lau edo bost lagunez osatutako taldearekin".

Seguruen kirol hau telebistan ikusetik besterik ezagutzen ez dutenei, alde batetik arriskutsua irudituko zaie eta bestetik garestia. Agustinek dioenez, ez bata eta ez bestea ez dira egia. "Gauza bat da garestia den edo ez esatea. Beti erlatiboa bada ere, niri ez zait garestia iruditzen. Piragua normal bat eskuratzeko 50.000 pezeta nahikoak dira, 100.000 pezetarekin hoberena erosi daitekeelarik, inoiz hautsiko ez zaizun piragua, alegia.

Arrisku maila, era berean, erlatiboa da. Norberak jakin behar du zenbaterainoko arriskutan sar daitekeen, eta hortik aurrera ez egin. Esta-

tuan, normalean, urte osoan ez da hildakorik egoten, baina Korsikan esaterako; jende piloak hiltzen da kirol hau egiten, ibaiak izugarriak direlako, noski".

Agustinen esanetan, kirol honek eskatzen duen baldintza bakarra, igerian jakitea da, aparteko dohain fisikorik eskatzen ez duen kirola beraz. Baldintza hori derrigorrez bete beharrezkoa da seguritateari begira, eta zentzu horretan ez da bakarra gainera. "Normalean, kaskoa, flotagailua, eta neoprenozko arropak jantzita eramaten ditugu. Lehen biak estuasunik ez edukitzeko eramaten dira, neoprenozko arropak hotzik ez pasatzeko eramaten diren moduan, zeren egia esan, Piriniotako hibaiekin urak benetan hotzak etortzen baitu. Hemengo ibaiak guztiz egokiak dira kirol honetarako, baina hain kutsatuta daudenez, Piriniotara joan behar izaten gara. Dena dela, piraguismoan hasteko edozein animatuko nuke".

◆ Centraljet irabazle

Asko kostata izan bazen ere, Txus Brizuelaren mutilak irabazle atera ziren Durangoko Tabirako taldearen aurkako partiduan. Partiduko lehen zatia, oso-osorik bizkaitarrentzat izan zen, beraz ez da arraroa atsedendian markagailuak 42 eta 49ko emaitza erakustea Tabirakokoentzat. Partiduari bukaera emateko hamar minutu besterik gelditzen ez zirenean, arrasatearrek berdinketa lortu zuten, azkenik 89 eta 84 nagusituz.

◆ Mondra gaizki


Azken aldian mondragoetarrak ez dabilta bat ere fin. Joan den igandean Zalla taldearen aurkako partidua jokatu zuten, eta baita galdu ere 2 eta 1eko emaitzaz. Arrasatearrek ia partidu guztia kontrolatu zuten, baina golak sartzeko orduan oso gaizki ibili ziren. Datorren igandean Atxabalpera Ondarroako Aurrera taldea etorriko da.

◆ Arrasate Kirolakek galdu

Gol bakar batez izan bazen ere, Arrasate Kirolak taldeak La Salle taldearen aurkako partidua galdu egin zuen, 24-23. Partiduko lehen zatian arrasatearrek oso gaizki jokatu zuten, atsedendirako 16 eta 9ko emaitzaz galtzen zuelarik. Bigarren zatian berriz, arrasatearrak esnatu egin ziren, partidua berdindu ere berdindu zuten, baina irabazteko zorian zeudela, arbitroen lan txarrak pikutara bidali zuen arrasatearren lan on guztia.

◆ Arrasate Atletikoaren batzarra

Gaur arratsaldeko 7etan Monterron Kultur Etxean Arrasate Atletiko taldeak bazkideen urteroko batzarra orokorra burutuko du. Diru kontuak, kirol balantzea, eta datorren urterako aurrekontuak aztertuko dira.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Goikobalu, yeah!

Goizaldeko ordu txikietan ez dakit zenbat garren espuela hartzen ari nintzen lagun batekin. Gure ondoan zegoen taldeko mutil bat nire laguna agurtzera etorri eta hizketan hasi ziren. Mutil gaztea zen, larruzko txupa beltzaz eta ezkerreko belarrarian bi belarritakorekin. Gutxien espero nuenean, Goikobaluri buruz hasi ziren. Iritsi berria abesbatzaren partaide zen, eta gogoz ari izan zitzaigun taldearen kontuak kontatzen. Barriako kontzentrazio ia mistikoak, entseietan emandako ordu luzeak, talde barruko giro martxosoa... Ni

egia esa, flipatuta geratu nintzen.

Aurrez banekien abesbatza gogor ari zela lanean eta zenbait partaide ere ezagutzen nuen. Baina ohizko koruen antzekoa izango zelakoan nengoen. Eta ez nuen aparteko interesik taldearen ihardueraz. Izan ere, ume garaian hainbat korutako partaide izana naiz eta musika mota horrekiko geratu zaidan jarrera nahiko xelebrea da. Une konkretu batzuetan kantu koralak zeharo hunkitzen nau eta gehienetan, aldiz, ez zait bereziki interesatzen. Baina gau hartan, txupa beltz eta bi belarritakodun hari entzuten flipa-

tuta geratu nintzen. Eta kuriositatea pizten sentitu nuen nigan.

Orain, Galesen egin duten ibiliari buruz Patxi Monterok prestatutako erreportaia ikusi dudanean, berriro geratu naiz flipatuta. Ez bait da guztiz normala rock kantari bat, ikasle gazteak, jubilatua eta mota ezberdinetako horrenbeste jende elkarlanean ikustea. Normala ez den bezala bi koru ezezagunak bapatean elkarrekin kantuan jartzea, "Maitia nunzira, nik etzutut ikusten..." eginez, tartean galestarren "t" bustiak nabaritzen zirelarik. Berriro ere agerian edozein motatako musikak jendea elkartzeko

duen gaitasuna.

Hala ere, kontua ez da hori bukatzen. Goikobalu izan zitekeen harreman pertsonaletarako esperientzia aberatsa besterik gabe, eta hori bera ez da gauza makala. Baina horrez gain koru ona ere bada, Ejean irabazi berri duten sariak erakusten duenez. Eta zenbaiten ustetan oso ona izatera ere irits daiteke, lanean daraman denbora laburrean lortu duen maila ikusita. Guzti horregatik irten zait izenburuan "Goikobalu, yeah!".

Hurrengo emanaldira ez dut huts egingo. Zin dagit.

Mikel Irizar

EUSKAL FAMILIATAN

IKASII!!



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familiatan.


Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00

Batuta

Cesareo Gabarain

Cesareo Gabarain, jaiotzez hernaniarra bada ere, orain gaixotasunak jota Mondragoeko ospitalean dago. Musika munduan izugarritzko maila lortu duela eta, dator Cesareo Gabarain Arrasate Presseko orrialde honetara. *"Duela 54 urte jaiotzen, Hernanin esan bezala. Hernaniko organojolea, Jesus Azurmendi, izan zen nire lehen musika maisua. Hamar urte nituenean, familiakoak Zaragozara joan ginen bizitzera. Apaiz egin nintzen bertan, eta gerostik lanean eta bizitzen toki askotan izan naiz, Donostian, Madrilen, Erroman, Estatu Batuetan... eta Antzuolan. Antzuolakoa ez zait inoiz ahaztuko, izugarri ondo ibili nintzen gazte eta kirolarien artean, 24 urtetik 28ra egon nintzen han"*.

Musika ikasten txikitari hasi bazen ere, apaiz ikasketak egiten hasi arte, ez zen konturatu musika oso gustokoa zuela eta gainera musikarako dohain berezia zuela. *"Bizitza honetan lehenik, apaiza izan naiz. Horretaz gain, musika munduan eta gazteekin egin*



dako lanek ordu asko kendu dizkidan. Ezin da ukatu musika munduan gauza asko egiten ahailegindunazela: txistularia izan naiz, organojolea, kitarrajolea... eta batez ere konposatzailea".

Cesareo Gabarainek ez du arrazoirik falta bere burua konposatzailatzat edukitzean. Izan ere, letrak ere berak idazten dituenek, konposaketarako abantaila handia izan du. Datu bakar batek baieztatu dezake aurrekoa: Cesareo Gabarainek 36 LP kaleratu ditu, edo beste modu batera esanda, 400 kantu baino gehiago, beti erlijio musikan. Azken urteak Madrilen egin baditu ere, Mondragoen orain gustora dago. *"Arrasateko ospitalak ez du fama onik, baina nirekin behintzat oso ondo portatzen ari dira guztiak. Gainera etxean bezala nago, hemen ere senitartekoak badituz eta"*.

Lehenik apaiza naiz, gero musikoa, batez ere konposatzailea

Txio txioak

■ Haurren Abesbatz Topaketak


Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastolak antolatutako, maiatzaren 4ean izango dira Amaia antzokian, arratsaldeko 4.30etan. Lau mailatan banaturik, honako talde hauek hartuko dute parte:

- 3 urtetik 5 urtera bitartekoetan: Umezaintzako abesbatza, Pili Otsoaren zuzendaritzapean eta San Frantzisko Xabier ikastola, Izaskun Pujanarekin.

- 6-7 urte bitartekoetan: San Viatorrekoak Pilar Fernandez zuzendaritzapean, Musakolako Eskola Publikokoak, Asun Mujikaren zuzendaritzapean, Almen, Maria Asun Berezibarekin eta San Frantzisko Xabier ikastolako beste talde bat, Edurne Abasolok zuzendua.


- 8 urtetik 10 urtera bitartekoetan parte hartuko dutena: Bergarako Aranzadi (Rosa Narbaiza), San Viator (Pilarre Fdz. Arroiabe), Almen (Maria Asun Berezibar) eta San Frantzisko Xabier (Isabel Gallastegi).

- 11tik 14era bitartekoetan: Oñatiko Txantxiku ikastola (Loli Ordoki) eta San Frantzisko Xabier (Gurutze Urribarren).



San Frantzisko Xabier ikastolako abesbatza

"EDERTU"
ileapaindegia




San Andres auzoa 79 04 28

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Euskararen normalizazioa zer ote?

Euskararen normalizazioaz hitzegin nahi dugunean kontuan izan behar dugu hizkuntza hiru planotan banatzen dela, elkarren artean harremanetan dauden hiru plano ezberdin dituela edozein hizkuntzak: pertsona, komunitate linguistikoa eta hizkuntza bera. Normalizazioaren eskematxoa, gaurkoan eta datozen hiru artikuluetan jorratuko duguna, ondorengo hau duzue:



Ikusten duzuenez, normalizazioaren erdigunean pertsonak kokatzen dira, euskaraz egin beharrekoak egiteko gaituak dauden pertsonak; eta gaituak ezezik, eurok bizi diren tokietan euskaraz bizi ahal izateko ahalegina egiteko prest daudenak, gainerako euskaldun osoekin (hizkuntz kontzientzia daukatenak) elkarlanean aritzeko prest daudenak.

Gizarte bizitzan pertsonak ez gara bakarka ibiltzen nor gure aldetik, elkartu egiten gara kuadriletan, lan-tegian, edozelako elkartetan, eta horraino ere iritsi beharra dauka normalizazioak. Ez dugu ezer egiten pertsona bat edo beste trebatua izanda euskararen "arazoetarako",

gure elkarteak, banketxeak edo jai-batzordeak erderaz funtzionatzen badu. Etxea teilatutik hastea baino txarragoa da hori, kanporako itxura gorde eta barrutik erderaren harrak etengabe jarraitzen bait du.

Eta dinamika jaten euskarak bere baitan biltzen dituen bere hiztun konpaktatuei esker pausoz-pauso honetan hasiz gero eremu berriak irabazten hasten da, gaur egun gaztelaniaz egiten diren hainbat gauza euskaraz egiten hasten da eta pausoz-pauso sinesgarritasuna irabaziz gure hizkuntza hasten da, bai euskal hiztunengan eta bai oraindik ere ez dakitenengan.

Aldi berean, funtzio be-

rriak eskuratu ahala, euskara trebatzen hasten da errealtatean eginkizun berri horietan.

Normalizazio hitzak gaur egun han-hemenka ematen zaion esanahia txepela baino zerbait serioagoa adierazten du. Askotan gertatzen da errepikatuaren errepikatuaz hitzak galdu egiten duela bere esanahia, zeinek, non eta zein helbururekin esaten duen, erabat aldatzen dela berbarean esanahia. Ikusi bestela: "La normalización del Euskara en la Rioja Alavesa, objetivo de la edición del Araban Euskaraz" esaten zuen egunkari batek, leku ederrean dago zorioneko normalizazioa!

Atalataikoan

BIDEO-EMANALDIA

Nire ama sorgina

Tokia: Monterron Kultur Etxea

Eguna: apirilak 27

Ordua: arratsaldeko 4etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



Plus Ultra tabernakoa

Felixi ez zaio gustatzen autoa azkar eramaterik, eta ibili ere ez asko ibiltzen, bidaia-rik luzeena Iruñera edo egingo zuen eta. Gauze baino egunez nahiago, musikak aspertu egiten du eta irratia entzunaz joaten da. Mantenimendua eta garbitasuna berak egiten ditu beti, baina mekanikaz ez dakiela dio. Stopean jendea hartzen daki, eta autoa beste norbaiti uzteko ere ez du eragozpenik. Lapurretarik? muturreko anagrama kendu diote kalean, eta baita gurpilaren llanta ere. Gerrikoa erabiltzeaz autopistan baino ez dela gogoratzen aitortzen du.

• Felix Arrospide •



HITZALDIA

Denak kurduen etsai? gu elkartasunean

- Kurdoen arazoa, eta herri minorizatuak
- Nazio zatitua, zapaldua, desegina...

Hizlariak:

TONINO MENDIZABAL
(EHU ko irakasle eta AEDko partaidea)

LUIS FERNANDEZ
Egunkariako nazioarteko arduraduna

Apirilak 29, astelehena
Arratsaldeko 7etan
Monterronen



Maiatzaren lehena: Mountain-bike Durangon

1 991ko maiatzaren lehenean, langile guztien egunean, Durangon 1. Mountain Bike proba izango da. Antza denez, antolatzailea Durangoko MB taldea izan da eta bertako Udalak eta Durangoko Ziklisten Elkarteak lagundu dute.

Araudiaren arabera, ibilbideak 25 kilometro izango du eta federatuek lehentasuna izango dute. Partaidetzari dagokionez, esan beharra dago mugatu egin dela: gutxira 250 partaide. Dena den, antolatzaileek, eurek gura izanez gero, 300 lagun ere onartuko dituzte.

Adin-muga: 14 urte-70 urte. Oso garrantzitsua: kasakoa derrigorrez eroan behar-



ko da, eta txintxonarik ez da onartuko.

Izena emateko epea apirilaren 26an amaituko da: telefonoak: 94/6201999: - eguerdiko 12etatik ordubietara

- arratsaldeko 4etatik gaueko 9etara.

Dortsala Durangoko

Maxi-Eroskiko aparkalekuan jasoko da, goizeko 8etatik 9etara, lehiaketa egunean. Proba goizeko 10etan hasiko da. Prezioak: federatuentzat 1.000 pta. eta federatugabeentzat 1.500 pta.

Ibilbidea: Irteera Maxi-Eroskin. Gero Artabilla-Mendiolako errota-Men-

diola-Atxarte eta Txakurzulo. Txakurzulotik berriro Atxartera eta gero, Izurza aldera, Nebera, San Andres eta helmuga irteera-lekuan.

Sari ugari izango da bertan, eta partaide guztiek jasoko dute saria: kamiseta bat eta pontxera bat.

Mailak horrela banatu dituzte: sailkapen nagusia, senior maila, junior maila, promozio maila eta nagusiak.

Badakizue ondo prestatuta egonez gero, eta zeure indarrak neurtu gura ezker, Durangon aukera polita izango duzue.

Denbora pasa ere joateko aukera izango duzu, lehiaketatik kanpo, ezer jokatu barik. Animo eta langile guztion egunean ondo pasau!!

K. U.

ARRASATEKO II. IHARDUNALDIAK

UEUren laguntzaz

HITZALDIA

Apirilak 30, asteartea


ARRASATEKO AUZOEN BILAKAERA AZKEN 20 URTEOTAN

- Egitura demografiko eta sozialaren bilakaera.
- Etxebizitza-mota eta zerbitzu-hornikuntzaren bilakaera.
- Egitura sozial eta kulturalaren bilakaera

- **Hizlaria: IÑAKI LARRAÑAGA**
Siadecoko soziologoa
- **Tokia: Monterron Kultur Etxea**
- **Ordua: Arratsaldeko 7etan**



ARRASATEKO UDALA



kutxa

Multisol betaurrekoak 1.500 pta.tik hasita



Eguenean, heure modura eta modak txundituta baldin bahabil, Multisol betaurrekoak dituk hireak. Hator laster bila, 1.500 pta.tik hasita eta alkondarra bat opari. Multisol duk hirea!

Hirea duk!



San Pedro, 22 - BERGARA
 Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
 J. M. Baradian Enparantza - ORDIZIA

Bergara: 76 15 75. Arrasate:79 29 95. Ordizia: 88 99 88.



Parques y Jardines

**PARKE ETA LORATEGIEN
 SORKUNTZA
 LORAZAINTZAKO
 MANTENIMENDUA ORO HAR
 LANDARE-BIRSORKUNTZA
 HIDROEREINTZAZ**



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

Aste gazte

Ez hartu goilara ezkeraz.

Ez jarri ukondoak mahai gainean.

Tolestatu ondo serbiletan.

Hori, hasteko.

...

Ez izan zoroa. Zintzoa izan. Zuzena izan.

Ez edan. Ez erre. Ez eztluk egin. Ez hartu arnasarik.

Ene ba, arnasarik ez! Ez guztiei ezetz esan.

Eta atsedean hartu: hil

Gabriel Celaya

Lan-ihardunaldiak

• Azkenik! Badugu aurten Lan-Ihardunaldiei buruz zerbait informazio (adina, non, noiz...). Beti bezala, plaza asko ez dagoenez, interesatuei inskripzioa lehenbailehen egiteko gomendatzen zaie (batez ere 18 urtetik beharakoei). Epeak: a) nazioarteko eta estatuko lan-ihar-



dunaldietarako: maiatzaren 2tik 27ra, b) Euskadirako: maiatzaren 13tik 27ra.

Egonaldiak euskal familian

• Euskara ikasten ari diren 18 eta 35 urte bitartekoei zuzenduriko programa. Hilabeteke egonaldiak (uztailetik azarora). Tokiak: 7 lurraldeetan, herri ezberdinetan. Ikasgaiek etxebizitza nahiz base-riaren zeregin arruntetan parte hartzeko konpromezua hartu behar dute. Prezioa: 15.000 pta. Epea: maiatzak 31.

Ikastaroak

• XVII. Udako Euskal Ikastaroak. Lazkaon. Ikastaro trinkoak: uztailak 1-19, abuztuak 1-23 eta irailak 9-27. Matrikula prezioak: klaseak eta pentsio osoa: 19.500 pta. Alojamendua barnetegian edo etxe partikularretan, familia euskaldunekin, egin daiteke.

• "AEGEE" Erakundeak (Nazioarteko Goi Mailako Ikasleen Erakundea) udarako ikastaro-programa zabala eta

interesgarria prestatu du. Parte hartu ahal izateko, erakunde honen bazkide izatea beharrezkoa da (baldintzak: unibertsitate-ikasle izatea edo ikasketa burutuak izatea, eta urteko 2.000 pezetako kuota ordaintzea) a) Hizkuntza ikastaroak atzerrian: alemanera, italiara, frantsesa, ingeleza, erusiera, katalana, esperantoa, txekiera, nederlandera, grekera, hungariera, suomiera, eta errumaniera. b) Beste ikastaroak (atzerrian baita ere): argazkigintza, historia, kazetaritza, musika, antzerkia eta arkitektura. Ikastaro guzti hauen iraupena 15 egunetakoa da. Prezioa: 85 ecu (11.000 pta.). Prezioaren barruan: eskolak (asteko 20 ordu), aisialdi-ekintzak eta alojamendua (kasu batzuetan mantenua ere barne). Bidaia norberaren kontu.

kaian, Gipuzkoan edo Nafarroan bizi den 18 urtetik gorako edonork egin dezake eskaera. Epea: maiatzak 5.

Lehiaketak

• "Geoda" VI. Olerki eta Ipuin Lehiaketa (Gernika). Euskaraz edo gazteleraz. Ipuinak, gutxienez 3 orrialde-takoak izango dira eta olerkiak 200 eta 400 bertso bitartekoak. Sariak: guztira, garaikurra eta 50.000 pezetako 4 sari banatuko dira. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 18.

• XIV. Euskal Zinema eta Bideo Bilera: Euskal Zinema, Euskal Bideoa eta Gidoi Lehiaketak (Lekeitio 91). Sari ezberdinak, modalitateen arabera. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 24.

Bekak


• "Tandem" Kulturarteko Elkartearen Udako Bekak: Alemanian lau ikastaro trinko eta bat Italian. Araban, Biz-

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62


Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- **Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko.** Deitu asteleheneetik ostiralera, gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- **Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Tfnoa: 79 01 00. Jose Luis.
- **Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu,** deitu 76 16 68 tfnora.
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai Iturriotz kalean.** 89m2, hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- **Uribe auzoan etxebizitza salgai.** 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.

ANA

- **Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko.** Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- **Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 49 05.
- **Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 65 83.

- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 87 88.
- **Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko,** 23 urtetik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.
- **Jaun-andereok:**
 - Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
 - Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
 - Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
 - Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.
- **Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da.** Tfnoa: 79 49 18.
- **Estetika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago.** Tfnoa: 79 19 20
- **Gizon gaztea lan egiteko prest.** Egun erdi, goizez. Dei 79 75 43 tfnora. Jesus.
- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 16.00etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.

SALEROSKETAK

- **Aretxabaletako Kultur Etxeak motoreta erako lau bizikleta eta zortzi irristola erosi nahi ditu,** denak bigarren eskukoak. Tfnoa: 79 01 05 lan orduetan.
- **"Data o Tone" organo elektrikoa salgai.** Berria eta prezio onean. Interesatuek dei egin: 79 80 55 tfnora. Gauean 8.15etatik aurrera.
- **"Mascot" walkie talkie parea salgai.** Berriak eta prezio onean. Interesatuek dei egin 79 80 55 tfnora. Gaueko 8.15etatik aurrera.
- **Bost laguntzako kanping-denda salgai.** Aluminioko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- **Kutxa izoztailea salgai.** Aproposa etxean edukitzeko edo edozein produktu izoztua gordetzeko. Aukera ezin hobea (sei hilabetetan

erabilia bakarrik). Interesatuek dei egin astearte eta ostiral bitartean 94 - 682 04 83 tfnora. goizez bakarrik.

- **Peugeot 103 modeloko motorra salgai.** Ondo zaindua, dokumentatua eta prezio onean. Interesatuek dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsaldez 19.00etatik aurrera.
- **Yamaha 250 Special salgai.** BI- 8802-AP. Dei 77 10 90 tfnora lanorduetan.
- **Bost laguntzako Hergo markako karabana abanxe eta guzti salgai.** Tfnoa 78 17 88.
- **Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke.** Lanorduetan 77 09 40.
- **R-21, 21 Turbo autoa salgai.** 38.000 km, garajea lo eginda. Tfnoak: 79 34 23, 79 98 94
- **Karro-denda salgai.** Alpen-Kreuzer GT modelokoa (2 logela, 6 pertsonentzat) gainerako guztiekin. Tfnoa: 79 66 31.
- **Amstrad Cpc 6128 kolorekoa salgai.** Inprimagailua, arkatz optikoa, ramdisk, jokoak, testu prozesatzailea, musika, marrazkiak. Aldizkariak eta liburuak ordenadorearekin ematen ditut. 60.000 pta. Dei bazkal orduetan 79 62 94 tfnora.

DENETARIK

- **Gazte batek buzonaketa lanak egingo lituzkete** asteburuetan. Interesatuek dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsaldez 19.00etatik aurrera.
- **La Merced-eko ikasle ohiok afaria dugu** maiatzaren 11n. Eman izena Hire liburutendean.
- **Ohe biko sofa, itxurazkoa,** koltxoi eta guzti, eraman alde emango nuke. Dei 79 05 91 tfnora. Nahi duenak eraman.
- **Eguerdiko sei t' erdiak dira. Arroz esnea edarra edarra, edarra dago.** Urbian euria ari du, baina, Matxinbentan aterri. Gorantziak. Aitziber zer moduz Goñin? Jo ta fuego "Txarabeltz" sektorea.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**



Fernandez Ruiz Amelia
apirilaren 420an. 84 urte.
Mendizabal Corvenzana,
apirilaren 22an. 86 urte.
Uribe-Etxebarria Galdos Karmen,
apirilaren 23an. 81 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Artxibotik

Ahuntzak eta landareak

Lehen ahuntzak maite nituen; orain, zenbat eta urtetan aurrerago, landareenganako irrika sortu zait. Eta biak batera eta neurri berean ezin maita. Izan ere, landareak eta ahuntzak elkarrezi-
nak bait dira. Oraintxe bertan, larrosa, lili eta abarren loratzearen zain nagoen honetan, ahuntzen beldur naiz. Sartzen badira, akabo nire landare eta zuhaiskak...

Duela gutxi, ahuntz batzuen jabe den baserri-
tar batek aitortzen zidan ahuntza denetan animaliarik txarrena dela, baina "eman" egiten duela.

Azkenotan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak neurri gogorak hartzen ari dira mendietan libre dabiltzan ahuntzen aurka, basoko zuhaitzetan eta fruitarboletan egiten dituzten kalteak direla eta.

Kontu hauek, dena den, ez dira berriak. Duela mende batzuk ere antzera zebiltzan. XVIII. mendean, esaterako, egurra behar beharrezkoa zen, besteren artean untzioletarako, ikatzerako, etab. Beraz, gure inguruko basoetan mintegi ugari zegoen: Legarrakoa (Musakola), Artetakoa (Udala), Madariagakoa (Garagartza), Murugaingoa... Eta mintegiekin eta zuhaitz berriekin etsai gogorak zituzten: ahuntzak, nola ez.

Bada, Gipuzkoan ikusirik ahuntzek kalte handiak egiten zituztela, agintariak neurri gogorak hartu beharrean aurkitzen ziren. Horren berri zehatza Arrasateko artxiboan dagoen 1728ko dokumentu batekin ematen digu. Ahuntzak basoan libre uztearen aurkako erret ordenantza da.

Gipuzkoako Foruetan bazen artikulua bat ahuntzak norberaren soloetatik kanpo edukitzea debekatzen zuena. Arau hau hautsiz gero, isuna jartzen zen. Baina zigor hori ez zen gogorregia, nonbait. Irakurri bestela ordenantzaren datorren erabakia (eta merezi duelakoan, jatorrizko hizkuntzan ipiniko dut):

"(...) que qual quiera persona, que encontrase Cabras fuera de la heredad de su dueño en contrabención de él, las matase, y que fueren para el que las matase, para que de esta Suerte se evitasen dichos daños, y perjuicios..."

Ahuntz gaixoak!! Eurena ete errua?

T. O.


Zer nahiago?

Francisco Armiño San Andres taldeko lehendakari-ordea



- **Ilegorriak ala morenak?** Ilegorriak.
- **Besaide ala Udalaizt?** Berdin zait, ni ez naiz igoko eta.
- **Araba ala Gipuzkoa?** Gipuzkoa.
- **San Juanak ala Santamasak?** San Juanak.
- **Okela ala arraina?** Okela, arraina ez zait gustatzen.
- **Mendia ala hondartza?** Hondartza, hondartza.
- **Beldur handiagoo, kornerrak ala faltak?** Faltei beldur handiagoo diet.
- **Gola, buruz ala hankaz?** Politagoak buruz sartutakoak.
- **Oinez ala autoz?** Beti autoz.
- **Ardo zuria ala beltza?** Ardoa ez zait bat ere gustatzen, nirea garagardoa da.
- **Futbola ala futbitoa?** Futbola, noski.
- **Ezkerrez ala eskumaz?** Eskumaz.
- **Aldizkaria ala egunkaria?** Nik egunkariak irakurtzen ditut.
- **Telebistan, pelikulak ala kirolak?** Kirolak ikustea gustoko dut.
- **Zuzena ala diferidoa?** Zuzena, batzuk hanka nola sartzen duten atsegin zait.
- **Errealak ala Athletic-a?** Errealak noski.
- **Diskoak ala zintak?** Zintak jartzen ditut beti.
- **Dantza egin ala begiratu?** Dantza egitea.
- **Ogi normala ala integrala?** Normala.
- **Jokatzeo, atezain ala aurrelari?** Aurrelaria hobe.
- **Taberna ala pub-a?** Pub-etan lasaiago egoten da.
- **Kanpoan jokatu ala etxean?** Etxean jokatzeko beti hobe da.
- **Musika klasikoa ala modernoa?** Modernoa.
- **Tutea ala musa?** Tutea, ez dakit musean jokatzeko.
- **Goiz oheratu eta goiz jaiki, ala berandu oheratu eta berandu jaiki?** Bigarrena, sarritan egiten dut gainera.

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



"La marcha de Cádiz" zartzuelaren antzezpena Ideal zineman. 1950

A

ste honetan berrogeitabat urte bete dira gerraosteko Mondragoen lehen zartzuela jokatu zenetik. Antza denez, S. Markos

egunean herriko bulegariek jai (meza eta bazkaria) izaten zuten. Halako batean, Luis Ordoñanari zartzuela bat antolatu behar zela okurritu zitzaion. Pentsatu eta egin.

Libretoa ikasten eta entseiatzen hiru bat hilabete eman zuten. Entseiu guztiak Iturriotz kaleko Centro de Acción Católicaan egin ziren, musika bandako sei bat musikok jotzen zutelarik. Ideal

zineman bi antzeppen egin ziren eta bietan lepo. Handik hilabetera Elorriora joan ziren. Antzeztokia kolore guztietako txirikordaz beteta zegoenez, goardia zibileko sargentuak suspenditu egin zuen ekitaldia, kolore nazionalistak zeudelako aitzakiaz. Ordubete eta erdi geldu egon ostean, Esteban Bilbaoren telefono-dei bati esker, antzeztu egin ahal izan zen azkenean.

Argazkian, atzekoak zutik ezkerretik eskuinera, L. Agirre, K. Iturbe, P. Martinez, K. Uriarte, P. Lasa, E. Fernandez, P. Egidazu, A. Gonzalez, K. Arrieta, A. Otadui *Etxetxo* S. Arregi, M. Rodriguez, J. Axpe, S. Madariaga eta P. Uribe, azken biak eskileran.

Zutik, lehen lerroan, L. Ordoñana, Cerrajerako praktikantea eta zartzuela honetako zuzendaria, B. Velez de Mendizabal, J. Oteka, P. Velez de Mendizabal, T. Ortubai, P. Bengoa, R. Bilbao, M. Arregi, F. Arregi, B. Atxa, E. Artzamendi, P. Amozarrain, E. Madariaga, eta M. Nati Urionabarrenetxea.

Belauniko atzeko iladan, J. Egidazu, R. Amozarrain, A. Velez de Mendizabal, M. Karmen Etxebarria, R. Arana eta B. Azkoaga.

Belauniko lehen iladan, J. Agiriano, Manolo Sanz, J. M. Aiani, P. Castellanos, Arregi, F. de la Cruz Paco Medallas, J. Azkoaga eta J. Luis Urrutia



HI-FI CARS SYSTEMS

AUTORAKO ELEKTRIZITATEA

- Autorako soinua
- Alarmak
- Eklpamendua

Lagarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria






Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

SAN ANDRES ESKOLA

URTEKO HILA BETEAK

UDDUBZNMFA TSENUD
 ZBERXUJNOBPESTAN
 TAFRTUBXPUJIEGUA
 AZGIMBTUATAJRHEL
 IRHANRBSZBEUAIDU
 LHIPATATASEDODLA
 AEJMILBLINONJEZA
 BBKKIZIFUUIJDGAB
 IILALRJAHBHAKURU
 KKRSRJTBSATMKAAZ
 AIMAZKLBITLZXEXT
 TBTUXMNEIMOAASNU
 ERNBAZAROANSIMOA
 UEOMAIATZAZNETAS



Bas +  + tar batek ~~zuen~~ ra joan mahi zuen.
 Irten zen bas  tik bere  an ~~zuen~~ runtz
 eta  etan iritsi zen ~~zuen~~ ra eta  a hartu
 zuen ~~zuen~~ ra joateko.

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
 Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
 Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Bihotz bakarti bi kale
erdian
bata lurrera begira
bestea noraezean;
eta lainoa.

.....

Laino artetik leihoa
leihoaz barrukaldean ohea
ohe azpian hezea
eta gainean ase.

J. L. Ramos



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

28 ASTELEHENA

- 18.30 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan La Merced Ikastetxean grabatua.
- 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.
- 20.30 **Saltsa Maltzan**, Jaione Olabek prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia**:
- 20.50 **Berriak** (errepikaldia)

29 ASTEARTEA

Azterketak direla eta, ez da programarik egongo.

1 ASTEAZKENA

Ez da programaziorik emango.

2 OSTEGUNA

Astearteko programazioa errepikatuko da.

- 11.00 Teletestua.
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)



- 13.05 **Saltsa-Maltzan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
- 14.00 **Berriak**

3 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarriketa. Gonbidatua: Juanita Fundazuri, Arrasateko emakume taxista.



- 20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa.

4 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 **Berriak**(bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).
- 13.30 **Berriak** (bezperakoa)

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak**

MIKEL

**Eskaiola, pintura eta
kortxoazko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

Tremendo pasatu zuten La Merced ikastetxeko 3. eta 4. mailako neska-mutikoek **Bapirulauke** saioaren grabazioan. **Anuska Lasa** eta **Maidar Aranburu** pilotariz jantzita joan ziren eta **Iñaki Kort**a pilotari gazte xarmanta eurekin eraman. Denak pozik bai pozik irten ziren. Astelehenean ATBn, arratsaldeko 7.30etan.




Asteartean azterketa eguna izan genuen Arrasate Telebistan. Orain artean lau teknikarik egin dute lan ATBn, baina aurrerantzera hiru teknikari eta kazetari bat hartuko dira. Asteartekoa beraz, kamara, argiketa, soinu, editaia eta errealizazio lanak egingo dituzten hiru teknikariak hartzeko azterketa izan zen.

Aurreko bietan ez bezala, deialdia Gipuzkoara zabaldu zen. Tolosa, Beasain, Deba, Elgoibar, Eibar, Sorraluze, Bergara, Aretxabaleta eta Arrasatekoak ziren aurkeztu ziren hamasei hautagaiak. Horietatik gehienak, hamahiru, mutilak; neskak hiru baino ez. Gehienak Andoaingo Bideo Eskolan ikasitakoak.

Goizean hizkuntz eta estudio frogak egin ziren. Hamar izan ziren batean edo/eta bestean jausi zirenak. sei bakarrik pasatuz arratsaldeko frogak egitera. Azkenean, hamaseitik bostek bakarrik gainditu zituzten frogak guztiak. Orain enplegu-mahaiak erabakiko du horietatik zeintzuk izango diren geldituko diren hirurak.

Joxe Aranzabal



A lberto

Gorritibereak ondo

baino hobeto ezagutzen ditu

Arrasateko gorabeherak.

Makina bat bider egon izan da

Mondragoen zuzeneko

emanaldiak egiten Loiolako

Herri Irratirako. Horrezaz gain,

astelehenero *Kooperatibagoa*

irratsaioa egiten du.

Azkenengoz ATBn izan

genuen, Alkateari galderak

egiten.

◆ Arteak momentu ona bizi du Arrasaten. Jende asko ari da gauzak egiten, euren lana kailean ikusten ez den arren".

(Imanol Aranburuk Zenbat buru, hainbat aburu saioan)

◆ Artea bultzatzeko azpiegitura beharrezkoa da, baina inportanteena gogoia edukitzea da".

(Iñigo Arregik Zenbat buru, hainbat aburu saioan)

◆ Bergara beti sentsibleagoa izan da artearekiko Mondragoe baino".


(J.M. Velez de Mendizabalek Zenbat buru, hainbat aburu saioan)



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ez duzu asko behar izango zeureganatu nahi duzun pertsona hori gustora edukitzeko. Zuhurra izan zaitetz bestalde, halaberharrez zure ondoan daudenean, baliteke norbaitek zure esanak bere asmoak gausatzeko erabiltzea eta.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Arazo larrietan sartuta zaudelakoan bizi zara. Benetan itota zaudete motiborik gabe. Bila ezazu pertsona egokia eta zure penak azaldu ondoren, larritzen zintuzten arazoak ez direla hainbestetarikoa konturatuko zara. Urduri ibiliko zara.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Jolasa izango da benetan gustoko izango duzuna, baina argi ibiltzea komeni zaizu trakets samar egongo bait zara. Ez du, ez, jendeak batere gaizki pasako zure aldrebeskeriei barre eginez. Dena dela, atsegin azalduko zara.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Buelta gehiegi ematen ari zara daramazun bizimoduari eta ez zara gauza garbik pentsatzera ailegatzan. Hartuizu datorren moduan, gurpil zoroetan murgiltzeak erabaki garrantzitsurik ez hartzen. Zoriona etortzea suerta liteke ezusteko tokiren batetik.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Eginbehar hori aurrera atera ezinda zabilta Virgo; ezinezkorik ez dagoela ondtxo dakizu eta saia zaitetz hain kritikoa ez izaten, hori bait da moteltzen zaituena. Oreka ezazu lana eta aisialdia. Arinago arituko zara.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Duda-mudatan egongo zara egingo dizuten eskaintzari baiezeko erantzuna emateko. Eskarmentua omen da irakaslerik onena, baina bestalde probatu barik ez dagoela jakiterik ere egia galanta da. Anima zaitetz damutzeko astia gero ere izango duzu eta.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Baliteke noraezean ibiltzea eta amazulo egotea Geminiok. Erantzunik aproposenak norberak izaten ditu oro har, besteena lagungarri izaten da. Saia zaitetz erabaki garrantzitsurik ez hartzen, datorren hilean ere izango duzu astirik.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra


Kili-kolo dabil hasi berri duzun lige hori eta badirudi ez zaizula apurtzea komeni benetan maiteminduta zaudelako. Utz ezazu urak bere bidea eramam dezan, gogoz kontrako jarrerak bere ondorioak azaltzen bait ditu lehentxoago ala geroxeago.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Asmatu ezinda zabilta ligatu nahi duzun horren aurrean azaldu behar duzun jarrerarekin eta ez dituzu momentu oso atseginak pasatzen. Ez zaitetz hainbeste arduratu. Zure sentimenduak azaltzea baino ez zaizu gelditzen.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Mundu guztiarekin adiskidetu nahian ibiliko zara norbaitez mindu egin dituzun ustean bait zaudete; zu zeu mintzea baino ez duzu lortzen jarrera horrekin. Zure ekintzak zure gizalegearekin bat datozen oharu eta ondo ala kalte egin duzun konturatuko zara.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ez da erraza izango, ez, zu ulertzen takian potian aldatuko bait dituz erabakiak eta esanak. Baliteke norbait zurekin haserre azaltzea horregatik. Eziozu garrantzi handirik eman egoerari, iragankorra izango bait da. Baliteke zure biziko amodioa bilatzea.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Makal samar zabiltzala antzemango duzu; estresaren ondorioa da, Piscis. Zeure buruarendako asti pixka bat hartu beharko zenuke, merezi duzu eta. Gustoko lanetan ez da aldaparik izaten, baina gehiegikeriak erakusten ditu, bai, ondorioak.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioia heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

KADETT

200.000

PTA. GUTXIAGORAINO BALDINTZARIK GABE

Hil-amaierarte balio du promozioak.
Beharpenak bertsioen arabera.

McCANN



EZAGUTU EZAZU

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Kontzesionari Ofizialak

Iparragirre. Tfnoa: 72 33 71

OPEL 
Hobeak esperentziaz

